

anaitasuna

1979. EKO URRIAREN BIGARREN HAMABOSTALDIA. 390. ALEA. 60 PZTA.



BIZI NAHI DUGU
ABORTAZEKO ESKUBIDEA.
ITSASOAN URTEKARI.
NICOS POULANZAS HIL DA.



CAJA LABORAL. *Euskadiko*
Rubia 

AZKUE BIBLIOTEKA
 EUSKALZAINDIA
 BILBO
 3564
 28 AGO. 1978

AURKIBIDEA



- 4. Artikuluburua
- 5. Diskoak Hamabostero. K. Arko.
- 6. Bizi nahi dugu. I. Urtasun
- 8. Abortatzea legearen aurrean.
- 12. Eztei tzingaro bat Donostian. I. Urtasun.
- 14. Lekeition, antzerki topaketak. Txantxan.
- 16. Itsasoan urpekari, fotokamera eskuan. J. Etxebarri
- 24. Nicaraguaz berriro. K. Santisteban.
- 26. Ertafrikan frantsesak eskusartzen. M. Aldana.
- 27. Alemtejoko lurra odoleztaturik. M. Aldana
- 28. Errusiar emakumea. M. A. Landa
- 32. Nicos Poulutzas hil da. Pello Salaburu
- 34. Estatu modernoaren Teorizatzaile. Ch. D.
- 36. Liburu berriak. J.S.
- 38. Donostiar Zinemaldiaren inguruan. X. Portu.
- 42. Aitasantu ibiltaria. P. Agirrebaltzategi.
- 46. Gurutzegramak. Ardibeltz.



anaitasuna

KOORDINAKETA
J. R. Etxebarria

ERREDAKZIOA
J. Llerandi, T. Trifol

IDAZKUNTZA KONTSEILUA

J. Agirreazkuenaga, Andolin
Eguzkitza, J. R. Etxebarria,
Miren Izagirre, J. Llerandi,
E. Martin, Joseba Sarrionaindia,
T. Trifol, I. Urtasun, I. Zabaleta
ARABA

E. Knorr

BIZKAIA

J. Llerandi

GIPUZKOA

I. Urtasun, A. Oiartzabal

IPARRALDEA

M. Lanatua

NAFARROA

I. Zabaleta, B. Zabaleta

NAZIOARTEKOA

A. Eskisabel, M. J. Esteban, T. Trifol

IDAZLE ETA LANKIDEAK

J. Artzelus, X. Gereño, J. M. Torrealday, X. Kintana, A. Eguzkitza, P. Agirrebalzategi, Mariasun Landa, J. L. Alvarez (Txillardegui), J. Mendizabal, E. Entziondo, S. Laffite, M. Pagola, J. Sarrionandia, J. J. Bakedano, Natxo de Felipe, F. Alaña, J. Etxeberri, B. Barandiarán, K. Arko, J. Iturbe, M. Otazurialde, J. R. Bilbao, J. M. Arzubiaga, K. Santisteban, B. Atxaga, J. Idigoras.

FOTOGRAFOAK

Imanol, R. Zarrabeitia, A. Alday, Txaber

MAKETAPENA

R. Zumalabe,

KOMIKIAK

A. Olariaga, I. Lauzirika, B. Zia, X. Etxenike, Gentz, Monty

MARRAZKILARIAK

Ttua taldea

PUBLIZITATEA

ETA

HARPIDETZA

J. Idigoras, A. Uria

ANAITASUNA

Zabalbide, 68-entlo. BILBAO-6
Tfnoa: (94)4335808

MOLDIZTEGIA

Estudios Gráficos

Lege Gor. D. L. BI-1753-1967



GOGOETARAKO ORDUA

Atzean gelditu da gure historian ERREFERENDUAREN EGUNTzat ezagutuko dena. Makina bat euskaldunen gomutan, duda barik, gatazka eta gezurrezko oroitzapen baten moduan geldituko da.

Espero zenez, Estatutuaren projektua onartua izan da, alde % 53 doi bat lortuta. Euskal Herrian hain zauri sakona zabaldu duen jaioberri honentzat ez da, beraz, sinesgarritasun marjen handirik izan.

Gogoetarako ordura ailegatuta gaude, eta Euskal Herriaren geroaz sinesten baldin badugu, gure sozialismoranzko bidea itzulezinezkoa baldin bada, pausaldi bat egin behar dugu eta, prestutasun osoaz geure buruoi itaundu, ea sari eskas honek merezi izan ote duen honek beste banaketa eta enfrontamendu.

Estatutu honek, benetan bake eta berreraikuntza nazionalerako prozesua zabaltzen digu ala UCD-ren gobernuaren tapakia izango da, Suarez-en erreformaren oposizioa, oposizio guztiak deuseztatzeko?. Lehen sintomak nabaritzen ari dira, Erreforma onartzen ez duen ezker abertzaleko gazteen atxilo-ke-tan, gehitzen ari dira hilaren 25etik.

Nabaria ere, UCD-ren gobernuak kontzentzuaren aldeko inposatu dien morrointza. PSOE-ko militante baten erabiltzetaz deituriko greba jenerala, ez da izan abstentzionistak eta, batipat, ETArekin kontra eraturiko kanpaina bat baizik. Geure indar guztiez salatu behar dugun maniobra horrek, libratu egiten dizkio eskuak Madrileko gobernuari eskalada errepresibo bortitza burutzeko, eta bestetik, zabalik uzten du bidea, hurrengo batean, "esku beltzak" berritoren ere, antzeko gehiago egin ditzan; gero, deuseztatu nahi dituztenen kontura pasatzeko, ezker abertzalea besterik ez direnak.

Gure indarrak zapalkuntzaren kontra mugitu beharko dira, amnistiaren alde, langabezia eta Langilearen Estatutuaren kontra. Eta, helburu hauk sistematikoki boikotatuz, beren buruak askatasun eta zuhurtasunaren txapel-dun agertzen dizkiguten indar politikoek, nahasmenduzko barruti bat sortzen dute, UCD-ren gobernu erdirako iari bakarrik ondo datorkion nahasmendua beratu.


"EUSKAL ROCK"aren formak sendotu eta egituraturik. Errobiren "Ametsaren bidea" Garai hontako euskal musikaren iniziatiba haundiosa.

Errobirena urrats erraldoia izan da, bere "Ametsaren bidea" laugarren LPean. Aldi hontan ahoberokeriarik gabe segurta daiteke ezen "euskal rockak", euskal mugimendu musikalaren oraingo historian talderen batek ekarri duen obrarik haundienarekin topo egin duela. Gustu eta ideologiez landa, rocka izan daitekeen jeneroari buruz, eta beraren jatortasun zenbaitentzat dudagarriaz kanpo. Bai eta taldearen zenbait osokidek rockaz daukan kontzepziotik urrun ere, "rockari" gisa ezin identifika dakiekeela diote. Baina ez dut eztabaidarik ere sortuko zeintzu planteiamendu eduki behar dituen bereizkunde hauetako obra batek, rockaren definizioari fidelki erantzun ahal ukateko. Egunoroko praktikan ba dagoena harako jendea da, Errobi rockezko -hara, ez rock and rollezko!- talde eta jaien ondoan kokatzen duena, eta frogarik sendoena, nik uste, taldeak bere musikari ematen dion tratamendu formalean dago. Beste gauza bat da musika horren neurria. Iradokitzen eta mugierazten duen hatsa. Martxa, erroilua eta rock and rolla.

"Ametsaren bidea" aurrez aurre kokatzen da, Europako azken hamarkadako eskena musikalaren obra helduekin. Seguratu eginen nuke, haren edukinaren azterketa doi batean, guziori begiak irekierazten dizkigula, gaugerroz "haur txikiak" ez garela ikusteko, melodien, erritmuen eta holako elixiren munduko -bai, munduko- panoraman, eta, kalitatean funtsatutako gar honekin, gure merkatu musikalak kanpora begiratzen hasi behar duela.

Errobik bere musikari ematen dion aitzinamenduak Estatu espainolean bakarrik dauka parekorik, kataluniar mugimenduaren zenbait talde halakoa baita, La Compañía Eléctrica Dharma haien artean, kasu.

"Rock autoktono, autonomiko edo independentistaz" -ideiologi merkatua doakien arauera- mintzo direnak, ene ustez, zedatzen duen etnari datzekion rock propioaz mintzatzearekin akort dira. Errobiren kasuan, ñabardura



sakon hori hizkuntzan ezezik bere obra iradokitzen duen erabateko doinuak aurkitzen dugu, obrari uste sendoa eta arta herrikoi haundia hornitzen diotela. Argi eta garbi dago.

Dihardugun disko honen hitzak ez zaizkigu euskal nortasun zehatzaz mintzo. Ez hertsapenaren nazkagarriaz. Ez kontzentzuaren estrategiaz. Ez estatutu "askatasunez". Lehendabiziko aldiz,

Diskoak hamabostero

Errobik liberatu egiten ditu bere hitzak eta besarkatu gure Herriarena ere den beste hurbiltasun baten berotasuna. Pertsonalaren ikusgunitiko besarkada beroa. Bere hitz berriek barneko nahikaria daramate. Hau, bateratuta, jendeari idokitzen dio, heriotzeaz, Jainkoaz, samurtasun berriaz, askatasunaren zehazkabetasunaz partehar dezan haren ondoan. Eraldakuntza pertsonalaren aldaketa da, partehartze sozialaren multzoan. Bereizkunde interesgarria berau, egun herrialdean gogor gerta baitaiteke, batipat Errobik bere planteiamendu musikal ideologikoak alda ez ditzan galdatzen segitzen dutenentzat. Nik uste dut ezen, ez aldatu ezezik beraietan segitu egiten dutela. Ikusgunea da aldatu dena. Orain berria da ezohituagatik. Mingarria, erabatekoa, sormen artistikoaren zentzu konbentzionala hausten baitute.

Musikari dagokionez, haren katek lehen haroan (hitzei batipat zerbitzatzen zien haro hartan) zeuzkaten kanta standardaren moldeekiko inkonkrezioa nabarmena da. Egun Errobiren harrigarriena zera da, musikari ematen dion askatasun handia. "Andere" gisako gai hedatsu eta landuek ematen dute taldearen posibilitate gaitzen benetako neurria. Eta daukan esportapenerako irudi sendoa. Kanta honek, Durangaldeko herri melodietan, konkretuki "banako"an oinarrituta (hau bai sekulako ideia), sorterroetatik sormen pertsonalaren arlora garamatza. Gai bikain hontan "mediterraniar" soinua lortzen du, zenbait zalek hola esanen luke, aldeztu Mitxel saxo-sopranoaz baliatzen baita -lehen aldiz Errobik erabiltzen du joki hau diskotan- katauniar banden modu-modura. Nik neuk kenduko nukeen bateriaren bakarjoa gezurrezko, eran-


tsizko soinua egiten baitu, Benat Amorena herrialdeko bateria-jotzailerik hobereña dela pentsatuta ere.

Molde gogor eta oso harmonizatuak nahasten zaizkio herri joikien egokitzeko eta antolatzeko ahaleginei, albona kasu ("Albona" gaia). Honelako taldeetan haien erabilerari garrantzizko baderitzot ere, ez dut uste hura erabiltzen igarri duenik, Errobiri nagokiolarik.

Grabaketa akats gabea da eta produkzio honen bidez, Jean Phocas gure orain-oraingo musikaren uki-harria bihurtu da, ahots eta joikiei, ezaugarri pertsonala emanez, aterazten dizkien soinuak harmonizatzeako nagustasun ez-arrunta daukan gizon bezala. Teknikaren hoztasunari buru-bihotzezko ezaugarria ezartzea bezalakoxea.

Iragarria zaigu ezen diskoa zenbait herrialdetan barna banatuko dela eta baldin gutienezko eragin eta gorapeña lortzen badu, nik uste dut, Europako rockaren merkatu zaharkitu, nazioarteko eta alienagarrietan egun izan daitekeela irudimena eta kalitatea indarberritzen dituzten obra urrietarikoak.

Karlos Arko



BIZI NAHI DUGU

Ez gara umekiak. Ez gaude inoren sabelean. Emakumeak gara eta gizarte honetan gaude. Lan egiten dugu, ideiak dauzkagu eta pertsonen eran adierazten ditugu. Umekiek ez dakite hau egiten.

Horregatik, "bizitzaren defentsan" dabiltzala esaten dutenek beren ahuriak gure prentsan botatzen dituztenean, ez egin kasu handirik; umekiek bizi nahi dutela, esaten dutenean, ez dakigu nondik atera duten konklusio hori... umekiek ez baitute inoiz ezer esaten. Gainera, jaun horiek daramaten "bizitzaren defentsa" hori oso susmagarria da. Besteen sabeletan dauden umekien berririk ez dute baina emakumeonak bai. Ba dakite GUK BIZI NAHI DUGULA, eta hil egiten gaituzte, gartzelatu egiten gaituzte, umekiak salbatzeko. "Bihar pertsonak izan daitezke".

Bai jaunok, normalena hori izaten da. Baina gu GAUR gara pertsonak eta bihar ere nahi dugu izan.

"Umekia bizirik dago. Ez gordetzea hilketa bat da."

Eta zuen espermatozoideak ere bizirik daude. Zergatik botatzen dituzue? Beti zuek hiltzaileagoak...

Lelokeriei erantzuteko, handiago bat botatzea metodo ona omen da, baina ez dugu eztabaida beren arlora eramar behar, ez gara hasiko orain umekien arimaz edo ainguruaren sexuaz.

Emakumeontzat, gauza askoz ere sinpleagoa da.

GEURE GORPUTZAREN JABE GEU GARA

Eta barruan daukagun guztia gurea da. Min egin diezagukeen edozein zati mozteko edo botatzeko erabakia har dezakegu eta inork ezin digu eskubide gu eskubide hau ukatu bere moralaren izenean, morala berea delako eta gorpuzta berriz gure. Bakoitzak, bere morala bere gorpuztari ezar diezaiola! Potroak gangrenatzen zaizkiola eta bere moralak ez dituela galdu nahi... ba gorde ditzala! Emakume batek ez duela umerik nahi baina bere moralak ume bat inposatzen diola... ekar dezala!

ABORTUA ESKUBIDE BAT DA, EZ HELBURU BAT

Ez gara abortistak. Nahiz eta kondizio onenetan egin ez digu inolako plazerrik ematen abortatzeak, eta beste edozein ebakuntzaren modura, beti arrisku-tsua da gorputzerako.

Erabaki hori hartzen dugunean, benetan umea nahi ez dugulako izaten da; ezingo diogulako behar duena eman edota ama izateari garrantzi handia ematen diogunez, ez dugulako desiratzen ez dugun izaki bat mundura ekarri nahi.

Emakumeak, gaur eta hemen abortatzeko bere burua arrisku bizian jartzen

du, baina hala eta guztiz ere, nahiago du hori umea ekarri baino. Arrazoi astuak izango ditu dudarik gabe.

Horrela, praktikan, ume bat ez badugu ekarri nahi abortura jotzen dugu. Dirua dutenak klinika on batean, emakumearen mugimenduarekin harremanetan jartzen direnak Karman metodoaz -garaiz hartzen badute-, eta bakarrik daudenak... ba dakigu nola: perrexila, xaboia, galtzorrazak... hauk dira hiltzen diren emakumeak, jauntxoaren morala ase bedi, amen. Emakume hauek ordea, bizi nahi zuten.

Beste asko hil ez daitezken, hil ez gaituzten, baldintza onenetan abortatzeko eskubidea exigitzen dugu. Gure gorpuzta

geuk nahi dugu kontrolatu, geuk erabaki dagokion maila guztietan.

Baina geure gorputza maite badugu, zergatik egin behar diogu abortuaren moetak erasorik?

ZERGATIK GERATZEN GARA UMEDUN?

Maite, 44 urte, ezkondua, 2 seme-alaba.

"Medikuak, antisorgailurik ezin nuela hartu esan zidan. Nire senarrari kondoiak ez zaizkio gustatzen. Nik nahiago nuke "hori" ez egin baina gizona haserretu egiten zait... Gure harremanak oso txarrak dira, horrela ezin dut beste ume bat ekarri..."

Miren, 18 urte, ezkongabea, umerik ez.
"Ez dakit nola gertatu den, beti kontu handiz ibiltzen gara mutila ta biok, ba dakizu, garaiz atzera bota..."

Mari Carmen, 19 urte, ezkondua, alaba bat.

"Umeak asko gustatzen zaizkit, neska nahita ekarri genuen, baina orain senarra lanik gabe geldituko zait, ni ere lanik gabe nago... Antisorgailu hartzen ditut, baina hilabeteko atsedendi bat ari nintzen egiten ta begira..."

Mari Jose, 18 urte, ezkongabea, umerik ez.

"Mutil batekin ibiltzen naiz eta ezin dugu sarketarik egin, fimosisa oso hitxita du eta. Ba dirudi oso gertu isuri zuela edo... baina ez dut ulertzen! sartu gabe..."

Gure gorputza ez dugu ondo ezagutzen, antisorgailuak ez dakizki erabiltzen, hemen lor daitezkeeneak min egiten digute eta beste batzuen berririk ez daukagu edo ezin ditugu eskuratu. Gure sexualitatea gizonaren arabera bizi dugu -hori bizitzea baldin bada-, sarketa inposatzen zaigu...

Abortua den tragu txarra ez badugu pasa nahi, neurriak hartu behar ditugu garaiz. Informaketa zabal bat behar dugu. Sarketa gustatzen bazaigu, antisorgailurik egokiena aukeratu beharko dugu. Zein den jakiteko, medikuari galdetzea ez da metodo onena izaten... medikuntza gure herrian nola dagoen kontutan hartzen badugu. "SELF-HELP" taldeetan dabilzan emakumeek diotenez, gure gorputzari kalte ttikiena egiten diotenak kondoi eta diafragma dira; espermatozoideak hiltzen dituen krema on bat batera erabiliaz eta ondo jartzen baditugu, ondorioak onakizaten dira segurtasun aldetik ere.

Dena dela, sarketak ez badigu plazer handirik ematen... ez diezaigun inori gure gorputza sakabanatzen utzi. Harreman onak izateko, beste bide batzu ere ba dira, aurki ditzagun! Ez da hain zaila, irudimena eta maitasuna, besterik ez da behar. Ondo pentsatu eta... ez da hain erraza.

Itziar Urtasun



Ez gara abortistak, ez digu inolako plazerrik egiten.

Concha de la Peña-rekin berbetan.

A.: Gero, umekia bizirik noiztik kontsidera daitekeen arazoa ere ha da...

C.: Noski, eta ez dakigu hori. Baina, lege alderditik aparte, hemen dagoen problema nagusia moral sozialarena da. Pentsa genezakeenez, moral soziala jendeak onarturiko balore batzuk osatzen dute, baina maila laiko batean, eta sineste konkretu bat suposatu gabe, hemen kristau sinesteaz jazotzen dena, eta hau da jendeari inposatzen diotena normatiba horren bidez, zeren zalantzarik gabe, abortatu nahi ez duenak, nahiz zilegitua izan, ez du egingo noski. Eskatzen dena, horrelako kontzientzi eragozpenik ez duen jendeak, libreki egin ahal izatea da, bestela inposaketa moral bat delako.

A.: Orduan Eliza Katolikoaren jarrera...

C.: Eliza katolikoak eraginik handiena duen herrietan, agertzen da hitxikeriarik gogorrena arazoaz. Eliza guztiz dibortzioaren kontrakoa izanda, pentsa liteke zelakoa izango den bere abortuarekiko jarrera. Duela gutti, "borondatearen errespetauz" berba egiten zigun Diez Alegria jaunaren moduko zenbait pertsonaia ezagun eta militantzia kristau aktibodun talde batzu aparte, Elizaren jarrera bere ohizko hildo integratari darraio.

A.: Nola akusazu mementuon eskubide horren aldeko burruka?

C.: Orain argitara sortzen ari den fenomeno bat da, orain behintzat berba egin daiteke, baina oso erreakzio sozial gogor bat dago kontra, emakumeak berak baitira abortuaren errealitate soziala ezagutu nahi ez dutenak. Oraintsu, Bilboko hibaiaren udal batzarretan, abortuaren mozioak aurkeztu zirenean, nik ikusi ahal izan nuen, batzarrean burua makurtuta zeuden emakumeak zirela, gero gure kontra bortizkien erasotzen zutenak, gizonetzkoak baino txarragoak. Adineko eta emakume nagusiak gehienak, baina gazteak ere agertzen ziren kontra.

A.: Hala ere, ba dirudi kontzientzia handituz doala horretaz...

C.: Bai, batipat, oraingo judizioko emakumeen kasuak benetan esanguratsuak direlako. Ez dira izan askatasun batean jokatu duten emakume gazte batzu, nahiz eta inguruko errealitate sozialak gaitzesten duen eskubide bat dela jakin. Ez, guztiz kondizio sozioekonomiko eta sanitari latzek abortatzera beharturik aurkitu diren emakume batzuren kasua baizik.

Europar burruka normala da aspaldian, ondorio desberdinez, jakina, eta du-

darik gabe, denbora arazo bat izango da. Burrukatu egin beharko da, baina onartu beharko dute, abortatzea zerbait naturala zaiola emakumeari bere bizitza salbatu edo haurdunaldia moztu nahi duenean. Gainera beste kasu bat ere ematen da, Alemanian abortatzearen zilegitzearen bidea zabaldu zuena, hau da, emakume bortxatuen kasua, hauei haur bat inposatzea, eta ezin dira, aldiz, haur horrengandik libratu:

A.: Hemen ere antzekoa gertatzen dela pentsa daiteke...

C.: Bai, gauza bera. Tolerantzia handiagoa izango litzateke, maila judizialean haurdunaldi hori inposatua izan zela frogatuko balitz. Baina seguru da, abortatu egin bazuen, kondenatua izango zela.

A.: Lehen emakumeen eritzietaz mintzatu zatzaizkigu, nolakoak izaten dira gizonetzkoen jarrerak?

C.: Judizio hau dela eta eroan den kanpainan, sorpresa handia sortu zidan, mahaietara sinatzera zetozenak emakume gazteak eta gizon gazte eta nagusiak zirela ikusteak, Errepublika sasoiari bizi izan ziren gizonak batipat, 35-45 urtetakoak izaten dira, errealitate sozial hau ezagutzeko gogorrenak.

Abortatzeko eskubidearen mozioa aurkeztu zen Bilboko Udal batzarre osoa.




A.: Arazoa aldatzeko Kodigo Penala aldatu behar litzateke, beraz...

C.: Bai, baina ez litzateke aski izango zigorgabetzea, legezkatzea ere premiazkoa da. Zeren Zigorgabetze hutsaz, deliktu zibiltzat ere jo baitezakete, orain adulterio edo ohaidetzaz jazotzen dena, biak zigorgabeturik izan arren, desederatzearen kausak dira emakumeentzat. Legezkatze osoa beraz.

A.: Besterik.

C.: Bai, emakume eta medikuentzat, abortatzea azken soluzioa dela, baina horretarako aurreko famili planifikapena infirmazio sexual osoa beharrezkoak direla, egiazki abortua azken soluzioa izan dadin.

J.L.L.



KODIGO PENALetik.

**CAPITULO II
Del infanticidio**

410. La madre que para ocultar su deshonra matare al hijo recién nacido será castigada con la pena de prisión menor.

En la misma pena incurrirán los abuelos maternos que, para ocultar la deshonra de la madre, cometieren este delito.

**CAPITULO III
Del Aborto**

411. El que de propósito causare un aborto será castigado:

1. Con la pena de prisión mayor si obrae sin consentimiento de la mujer.
2. Con la de prisión menor si la mujer lo consintiera.

Si se hubiere empleado violencia, intimidación, amenaza o engaño para realizar el aborto en el primer caso, o para obtener el consentimiento, en el segundo, se impondrá en su grado máximo la pena de prisión mayor.

Cuando a consecuencia de aborto, o de prácticas abortivas realizadas en mujer no encinta, creyéndola embarazada, o por emplear medios inadecuados para producir el aborto, resultare la muerte de la mujer o se le causare alguna de las lesiones a que se refiere el número primero del artículo 420, se impondrá la pena de reclusión menor, y si se le causare cualquiera otra lesión grave, la de prisión mayor.

412. El aborto ocasionado violentamente, a sabiendas del estado del embarazo de la mujer, cuando no haya habido propósito de causarlo, se castigará con la pena de prisión menor.

413. La mujer que produjere su aborto o consintiere que otra persona se lo cause, será castigada con la pena de prisión menor.

414. Cuando la mujer produjere su aborto o consintiere que otra persona se lo cause para ocultar su deshonra, incurrirá en la pena de arresto mayor.

Igual pena se aplicará a los padres que, con el mismo fin y con el consentimiento de la hija, produzcan o cooperen a la realización del aborto de ésta. Si resultare muerte de la embarazada o



lesiones graves se impondrá a los padres la pena de prisión menor.

415. El facultativo que, con abuso de su arte, causara el aborto o cooperase en él incurrirá en el grado máximo de las penas señaladas en los artículos anteriores y multa de 25.000 a 250.000 pesetas.

La misma agravación y multa de 5.000 a 50.000 pesetas se impondrá a los que, sin hallarse en posesión de título sanitario, se dedicaren habitualmente a esta actividad.

El farmacéutico que, sin la debida prescripción facultativa, expendiere un abortivo, incurrirá en las penas de arresto mayor y multa de 5.000 a 50.000 pesetas.

La sanción del facultativo comprende a los Médicos, Matronas, Practicantes y personas en posesión de títulos sanitarios, y ala del Farmacéutico a sus dependientes.

416. Serán castigados con arresto mayor y multa de 5.000 a 100.000 pesetas los que con relación a medicamentos, sustancias, objetos, instrumentos, aparatos, medios o procedimientos capaces de provocar o facilitar el aborto o de evitar la procreación realicen cualquiera de los actos siguientes:

1. Los que en posesión de título facultativo o sanitario meramente los indicaren, así como los que, sin dicho título, hicieren la misma indicación con ánimo de lucro.
2. El fabricante o negociante que los vendiere a personas no pertenecientes al Cuerpo médico o a comerciante no autorizados para su venta.
3. El que los ofreciere en venta, vendiere, expendiere, suministrare o anunciare en cualquier forma.
4. La divulgación en cualquier forma que se realizare de los destinados a evitar la procreación, así como su exposición pública y ofrecimiento en venta.
5. Cualquier género de propaganda anti-conceptiva.

417. Los culpables de aborto, se hallen o no en posesión de título facultativo o sanitario, serán condenados a las penas señaladas en los artículos anteriores y, además, a la de inhabilitación especial, que comprende, aparte de los efectos propios de ella, el de prestar cualquier género de servicios en clínicas, establecimientos sanitarios o consultorios ginecológicos, públicos o privados.

EUSKARAZ ZER? HONA GURE HITZA: EGUNORO ERABILTZEA.



© GRUPO

Egin dezagun egunkari elebidun bat, gure kale, eskola eta lantegietan euskara egunoro erabil-araz dezan.

Geure hizkuntza baitugu gure herri bizitzaren erakusle bakarra.

Iritsi baita euskara geure etxe-zulotik ateratzeko garaia. Guztiok hartu behar dugu esku, Egin geurea, elebiduna, geuk nahi dugun hori izan dedin.

Elkargoan eginez. Guztiok finantziatuz.

Egin dezagun geure egunkari berri eta egi-zalea.

Harpide zaitetz eta partzuer-kontu bat eskura, kupoi hau bete eta ORAIN, S.A.-ri bidaliz: ORAIN, S.A.

Apartado 1567. Bilbao.

Apartado 444. Pamplona.

Apartado 1397. San Sebastián.

Apartado 420. Vitoria.

EGIN egunkariaren finantziaketan esku hartu nahi dut:

Urteko harpidetzaren bidez.
(2.000 a 100 000.) _____ pezetako partzuer-kontuaren bidez.

Ordaintzeko era

Giro n.º _____ Cuenta corriente n.º _____

Bankoa _____

Deitura _____

Helbidea _____ Telefonoa _____

Hiria _____ Probintzia _____

egin

HAGAMOS EGIN. EGIN DEZAGUN EGIN.



Beti gabiltza batek bestera, noizbait agian toki berera iritsiko gara eta elkar ikusiko. Baina... zaila da.

Uda honetan, eztei berezi batera joateko aukera izan dugu. Eguerdian, iritsi ginenerako giro alai bat aurkitu genuen. Talde bat musika jotzen ari zen landan. Inguruan, automobil ederrak, bakoitzak rulot handi bat ondoan zuelarik. Europako toki desberdinetatik etorriak: Frantzia, Italia, Holanda, Alemania, Belgika eta Espainiatik. Denak Donostian elkartu ziren ezkontza bat ospatzeko.

Emaztegaia agertu zenean, txaloak ugari izan ziren; zuriz jantzita eta urrez beterik, zoragarria zegoen 17 urte baino gehiago izango ez zuen neskatila, baina aurpegia triste.

Gero senargaia irten zen, oso dotore bera, garai bezain gazte.

Eskutik lotuta eseri ziren argazkiak ateratzeko.

Bitartean, musika eta dantza. Pentsatzen nuen beren folklorea aterako zutela horrelako gertaldi batean... baina ez; musikalariek abesti modernoak jotzen zituzten eta tzingarok rock-a dantzatzeko, oso ondo gainera!

Emakume batzu bazkaria prestatzen ari ziren eta haiengana joan nintzen zuzen:

— Gizonek ez al dakite sukaldaritzaz?
— Oi ez! Hori beti emakumeok egiten dugu! Umeak, garbiketa, janaria... gure lanak dira.

Senarrak berriz, dirua irabaztera joaten dira.

— Gaur ezkontzen direnak, zer dira zuentzat?

— Mutila nire semea da -esan zidan argazkian azaltzen den andre argal horrek-, bere ezkontza antolatu dugu eta hemen gaude!

— Zuek antolatu duzue, baina elkar maite al dute?

— Bai noski! Hori jakin gabe ezin ditugu ezkondu... maitasuna behar beharrezkoa da!

Mahai batzu; beraietan ardoa, garagardoa, champagnea. Atzean, gizonak eserita, lodi lodiak eta kapela buruan. Haiek ez zuten lanik egiten.

Andre zahar bat negarrez.

— Zergatik zaude hain triste?

— Neska nire biloba da, nik hazi dut eta orain niregandik urrun eramango dute.

— Nora joango dira ba?

— Mutilaren familiarekin. Ez da gehiago gurekin etorriko. Beti gabiltza bate-tik bestera, noizbait agian toki berera iritsiko gara eta elkar ikusiko dugu, bai-

na... oso zaila da.

— Bera ere triste dagoela dirudi.

— Bai, niregandik urruntzen dutelako.

— Baina bere senarra maite baldin badu, zoriontsu izango da berarekin...

— Bai. Gainera diru asko dute, milioi-dunak dira, baina... pena ematen dit.

Amona kantsolatu ondoren, buelta bat ematera joan nintzen. Rulotak barrutik oso txukun eta garbi zeuden, te-
lebista eta guzti zeramaten. Baten ondotik pasatzean mutil bat etorri zitzaidan eta nirekin dantzan hasi zen, gero bere anaia, gero bere laguna, gero mutil koxkorrak...

— Zuek, ijitoak, oso dantzariak zarete...

— Gu ez gara ijitoak, hungariarrak edo tzingarok baizik.

— Ez al da berdina?

— Ez, guk dirua dadukagu, ez gara lapurretan ibiltzen, ez dugu pelearik egiten... gainera arrazaz ez gara berdinak.

— Zuen artean zein hizkuntza erabil-

EZTEI TZINGARO BAT DONOSTIAN



Ezkontzeko ez gara ez elizara, ez inora joaten. Gure artean egiten dugu, gaur ikusi duzuen bezala.

tzen duzue?

– Hungariera.

– Nahiz eta toki desberdinetatik etorri, zuen lege bereziak gordetzen al dituzue?

– Bai, gure tradizioak oso finkaturik ditugu. Adibidez, ezkontzeko ez gara ez elizara ez inora joaten. Geure artean egiten dugu, gaur ikusi duzuen bezala. Gero neskak soineko zuri bat janzten du eta odolez zikintzen badu, dena ondo joan da!

– Eta, ez badu zikintzen?

– Orduan ez da emakume errespetagarri bat eta ez zaio ondo begiratzen.

– Dibortziorik ba al duzue?

– Ez. Beno, andrea beste gizon batekin joaten bada, senarrak bidali egiten du etxetik eta ez du gehiago ezertarako eskubiderik, ez umeak ikusteko ez etxetik ezer eramateko...

– Eta gizonak emakumea zigortu edo hil egiten badu kasu honetan?

– Mesedez! ez gara kriminalak.

– Alderantziz, gizona beste emakume batekin joaten bada?

– Eskubide osoa daduka eta andreak ezin dio inolako konturik eskatu.

– Egoera ez da oso ona emakumeentzat ba...

– Guk emakumeak asko errespetatzen ditugu, baina emakumea eta gizona oso desberdinak dira!

– Emakumea ez al da inoiz kanpora irteten lan egitera?

– Horretarako gu gaude.

Hau denau gizon batek esan zidan; bere andrea ondoan zegoen eta ez zuen ezetz esaten. Emakumeekin gai hauetaz hitzegitea oso zaila egin zitzaidan. Bati galdetu nioanean dibortzioari buruz ez zegoela esan zidan besterik gabe.

– Baina, adibidez, gizonak andrea jutzen badu?

– Hemen ez dute inor jotzen! Adizu! -esan zion lagun bati- senarrak inoiz jo al



Emakumeak, tzingaroen artean garbi dauka bere eginkizuna.

zaitu?

– Ni? Nik joko nuke lehenago!

Arratsaldean, festa bukatu ondoren, emakumeak dena jasotzen eta garbitzen hasi ziren, neska ezkonberria ere han zebilen lanean bere jantzia aldatu eta gero. Gizonak eserita. Gure arteko edozein familia igande batean mendira bazkaltzera joaten denean bezala!

Emakumeak, tzingaroen artean garbi daduka bere eginkizuna. Ondo betetzen badu, errespetu bat exigitzen du bere lanaren truk eta errespetu hori jasotzen du, ikusi nuenez.

Orain, erakutsi dioten bide hestu horretatik irteten bada noizbait... bere etorkizuna itxaropenik gabe agertuko zaio.

Musika, dantza, koloreak, aurea... baina aurpegia triste.

Itziar Urtasun

LEKEITION, ANTZERKI TOPAKETAK



Lekeitiok udan izan duen girotik - jende, kotxe, zarata eta trafiko mugimendua-oraingo egunetan bizi den lasaitasunera benetan alde handia dago. Eta ez da bate-re harrizkoa, 6.300 bizilagunentzako egitura urbanoa edukirik udan 30.000 ja-san behar duenean: ondorioa, jakina,...

leku eza, trafikoa, lohiak eta estolderia problemak...

Egunotan aldiz, Lekeitio euskaldunago eta lasaiago bat dakusagu: itsaso bizia..., olatuak talan..., hondartzan kalatxoriak beste inor ez..., portuan arrantzale batzu..., lasaitasuna, isiltasuna.

Halere turismoan oinarrituta egoteak, lanik gabeko negu luzea dakarkigu. Larunbat eta igandeetan tabernak betetzen badira ere, astegunetan ez tabernarik, ez dendarik. Eta Santa Katalinako serra, lealde eta latoneriak... lanpostu gutxi batzu baino ez dituzte ematen.

Euskal Herriaren zoritxarrezko jazoerak, errefuxiatuen arazoa, seme iraultzaileen erhanketak e.a. erantzun gogor-rrak aurkitu dituzte Lekeition ere; asanbladak, manifestazioak, gose grebak, gel-diuneak eta pixkanaka hedatuz doan kontzientzia iraultzaileak bultzarazi di-tuen ekintzak. Burruka aurrera doa...

Lekeition, Hazilaren 2,3 eta 4an UNESCOren III.ren babesean ospatzen diren nazioarteko antzerki topaketak muntatzeko dira. Oso leku ezberdinetan hospatu izan dira. 1976.ean (Belgrado) Jugoslavian, 1977.ean (Bergamo) Italian, 1978.ean (Ayacucho) Perun... Eskandi-naviako "Edin Teatret"-ek, tercer teatro delako antzerki kontzepzioaz harremanen bat duten antzerki taldeekin koordinake-tan jarri eta ihardunaldi hauk muntatu izan ditu. Herriak sortutako adieraz-moldeekin, herri dantza, musika... eta abarrekin lotura tinko bat bilatzen ari dira antzerkilari hauk...

Antolatzaileak, Txiruliruli taldekoak dira; Lekeition aurkitu ditugu.



Txiruliruli argazkia

Anaitasuna.: Lehenengo eta behin, esaniezaguzue Txirulirulitaz zerbait.

Txiruliruli.: Gu antzerki eta espresioaren inguruan aspaldidanik dabilen talde bat gara. Hor - han - hemenka ibiliak gara, teatro talde ezberdinetatik, maisu eta andereñoi espresio eskolak ematen Durango eta Deban, gorputz espresioa irakasten e.a. Orain dela urte bete pasa, Lekeitiara etorri ginen, eta hemengo udaletxeko kultura batzordearekin lanean hasi ginen; hemen lantxo batzu egin ditugu ere. Klaseak eman ditugu, antinuklearrekin espresio lanak egin ditugu eta obratxo batzu aire zabalean jokatzeko eginak.



A.: Goazen, nazioarteko topaketa haue-tara. Nola sortu da ideia hau?

T.: Danimarkan kokatzen den "odin Teatret" autoreen erakunde internazionalak azken urteetan, antzerki topaketak antolatzen dihardu. Aurten Eskandinavia eta Euskal Herriko taldeak batzeko gara, noruk bere esperientziak atera eta elkarri azaltzeko. Eskandinaviarrak kaleko agerpenak eta dramatizazio mailako ezagupenak eskainiko dizkigute, eta era berean guk geure maskaradak, pastoralak eta abarreko esperientziak.

A.: Zergatik Lekeition?

T.: Ba, agerian dago, Gasteizen edo beste edozein hiritan, diru eta promozio aldetik erraztasun handiagoak izango genituzkeela, baina gure ustez hiri handiak, agerpen kultural gehienen monopolioa edo jabetza hartuz doaz, erakusketa kulturalak zentralizatuz. Gure asmoa, herrietarantzko joera kulturala bultzatzea da. Bestalde, lehen esan dugunez, hemengo ahalegin kulturalak indartu nahiean gaude Lekeitioko udaletxeko kultura batzordearekin batera.

A.: Zein da topaketen eguneroko programa?

T.: Goizetan, 9etan hasi eta 4,30 arte "Odin Teatret"-ekoek zuzenduriko antzerki praktikari buruzko ekitaldia.

55 antzerkilarik parte hartuko dute, Suedia, Norvegia eta Danimarkako 15 eta gainerazkoak Euskal Herrikoak. Galizia-ko talderen bat ere gonbidatua izan da.

Arratsalde, 4,30 etatik 6,30 etara arte zinema. Projektatuko diren filme batzu, Odinekoek Hego Italian eta Amazoniako tribuekin izandako esperientziei buruzkoak dira. Kalean izandako antzerki esperientzietan ere emango da zerbait eta filmeen ondoren debataek...

7etatik aurrera Bali-ko dantzak eta Kathakali; kalez kale, animazio jokuak eta antzerki taldeen agerpenak. Arratsaldeko ekitaldiak irekiak dira, noski. Lekeitiarra nahiz kanpotarra, dei bat egiten zaio etorri nahi duen guztiari. "El Correo

de la Unesco"-k eta aldizkari espezializatuak topaketa honen berri emango badute ere, antzerkilari, kritikari eta kazetari dei berezia egiten diegu, honaxe etor daiten. Egunkarietan, eguneko ohartxo bat ateratzeko asmoa dugu.

Antzerkiari buruzko argazki eta kartel erakusketa bat ere prestatuko dugu. Zuberotar batzu ekarri eta pastoral zati bat hemen antzetztea bururatu zaigu, baina ez dakigu ahal izango dugun ala ez.

A.: Lehen esan duzue, diru aldetik problemak dituzuela.

T.: Ba, bai, Eskandinaviarren pasajeak, kartelak, mozorroak e.a. egiteko materialak, projektore eta zinetoki baten alokatzea... ez da oso presupostu handia

ina oraindik ez dugu finantzaketarik.

Lekeitioko herriak, elkarte eta txokoek beren laguntza eskaintzen digute, beraz janari eta lo egiteko arazorik ez dugu.

A.: Amaitzeko, zer gehituko zenukete?

T.: Antzerkiak elite txiki batentzat instituzionalizatzeko duen arriskua aipatu nahi genuke. Antzerkia sortu den inguruetik aldentuz doa. Eta hortik kalea eskuratzeko premia eta antzerkera joaten ez den edozein maila sozialetako jendearengana heldu nahia.

A.: Ba, ea dena ondo iriteten zaizuen eta antzerki topaketak eta gero kondatuko diguzue nola joan diren.

Txantxan

TEATRO MUNDUAREN DEIA

DEIA

Komunikatu honen bitartez, antzerki eta dantza taldeek, eta behean izenpetzen duten Euskadiko antzerki giroan bizi diren pertsonak, datorren Azaroaren 2, 3 eta 4an, Lekeition ospatuko den Euskal-Eskandinaviar antzerki topaketan parte hartuko dugula esan nahi diegu Euskal-Eskandinaviar antzerki topaketan parte hartuko dugula esan nahi diegu Euskal Herriko kultura zaintzea dagokien erakunde eta organismo. Bai eta ere, gure laguntza eman nahi diegu antolatzaileei organismo hauengana jo behar baitute topaketa honen presupostua betetzeko.


Gertaera honek, partaideen antzerki lana nazioarteko mailan projektatu eta ezagutztea esan nahi du, eta teknik arloan Euskal Herriko antzerkiari izugarritzko aurreremendua eman ahal dio, esperientziak elkar aldatuko baitituzte.

Bilbon, 1979.eko Irailak 10.

Izenpetzen dute: Gasteizko DENOK antzerki produkzio lankidegoa. Bilboko COMICOS DE LA LEGUA - KILIKILARIAK. Durangoko GEROA. Gasteizko LA FARANDULA. Donostiako TRINTXERPE. EUSKAL ANTZERKI TALDEEN BILTZARRREA (Federación de Teatro Vasco). BASAURIKO ANTZERKI ESKOLA. DURANGOKO ANTZERKI ESKOLA. Debako GOAZ. Oiartzungo INTXISU. Elgoibarko TAUPADA. BURUNTZA SARIBARI. TXONTXONGILO. EREINTZA.


TSASOAN URPEKARI,

Itsaspeko gauzak aipatzen ditugunean, berehala datozkigu burura olagarro izugarriak, marrazo ikaragarriak, eta haiekin burrukan ari diren gizon harmatuak. Zinearen eraginaren ondorioak ukitu gabe, eta fikzioa alde batera utzita, urpekari gazte batzurengana jo dugu, itsaspeko munduaren errealitatea ezagutzera, hain zuzen, *itsaspeko FOTOGRAFIA*ren ikuspegitik. Berengana zuzentzen gara.



Ikusterreza ez ohi den itsas fenomeno bat.

FOTOKAMERA ESKUAN



Lehen mailako bizia faltatuko denean ezingo dituk birsortu beste espezieak eta itsasoko biziak galera handiak jasanen ditu.

Anaitasuna.- Kaixo, mutilak. Egiguzue aurkezpentxo bat, eta esaiguzue nola auzartu zareten, fotokamera bana eskutan duzuela, itsasoan murgiltzera.

Mikel.- Orain dela zenbait urte, kamera errosia nian. Urpean erabiltzeko asmotan erosi nian, baina tira... besterik gabe. Orduan, adiskide bat nuenez Kanarietan, berari eskatu nioan enetzat erosteko. Bi edo hiru urtez, mendian eta erabiltzen nian kamera... aproposa baita gainera hauts artean edo elurretan eta erabiltzeko. Eta gehiagorik gabe, egun batean, botilarik gabe, betaurrekoak, oin hegalak eta hodia harturik, bada, fotografiak egingen hasi nintzoan. Gehienak, noski, txar to irten ziaizkidan.

A.- Nola izan daiteke hori? Urpera sartzera koan fotokamera, ez al da bustitzen?

M.- Bai baina. Hara, kamera bat urpean, bi eratara erabil daiteke, bata berez estankoa den kamera erostea, nik aldi hartan erosi nian bezalakoa (Mikonos) edo Ca-





Artatsuago niaukan itsas hondoak arrainek baino eta orduantxe pentsatu nian fotokamera erosteā.



lipso Nikkor izenekoa... eta bestea, bada, dukean kamerarentzako kaxa estanko bat erosteā edo heuk egiteā. Batzuk egin egiten juek, eta beste batzuk, osterā, erosi. Egiteā, zail samarra dela uste juat.

A.- Murgilaldi honen aurretik, zer egiten hauen?

M.- Musu igeri egiten nian. Niri, musu igeri egiteā gustatzen ziatzaidan. Orduan, musu igeriaren eta murgiltzearen alternatiba gisa, itsasoaren urpeko arranketa planteiatu ziatzaidan. Eta arranketan eman nituen urte batzu. Azkenez, arranketa ez ziagokidanez konturatu nintzoan, zeren, arranketari ekin beharrean, han agertzen zitzaidanari so geratzen nintzoan eta. Artatsuago niaukan itsas hondoak arrainek baino, eta orduantxe pentsatu nian urperako fotokamera erostearena, eta urpean ikusten nitian gauzen argazkiak egiteā. Hartatik aitzina, arranketaren kontua, bada..., zeharo ezabatu ziatzaidan. Nik i... kamera harekin segitu nian, eta egun batean, ba..., periodikuan iragarki bat irakurri nian, urpeko argazkaritzari buruzko solasaldi bat hospatuko zela hemengo, Bilboko, urpekari klub batetan. Orduan, joan nintzoan berbaldi hartara, eta sospresa handi bat aurkitu nian. Hau duk, klub hartako kidego osoan zehar, ez zegoela urperako fotokamera soil bat ere.

Fernando.- Eta besteok ere hantxe giaunden, neu, Rafa, Pablo eta. Eta interesa hartzen hasi gintzoazen.

A.- Klub hau nolakoa da, pribatua ala bestelakoa?

Rafa.- Ez, ez. Hemengo, Bilboko klubik ezagunena duk: CEVAS. Urpekaritz ikastaroak ematera saiatzen den kluba duk, eta musu igeriketazko teknika batzu ere bai, eta urpeko arranketaz ere bai, eta une hartan ez ziaten ezertxo ere fotografiazkorik.

A.- Zeuok zenutenarekin bakarrik abiatu behar zineten, beraz.


R.- Bai, zeretik hasi behar genian, han inork ere ez baitzuen kamerarik. Orduan, hango partekide batek, kamera bat erosi zian eta harentzako estalki bat ere bai. Kamera merkea duk, baina asko falta ziaioek gauza onik egiteko. Hogeitamaseko erroilo batekin "Ricoñ" (hola zik izena) honek hirurogeitamabi argazki egiten zitik. Gainera, dispartzerakoan erroilloa pasatu egiten duk, horregatik oso erraxa duk haren estankotasurfa. Flash bat eta bonbilatto bat ere ba ziamamak baina ez zituk egiten argazki onegiak.

A.- Noiz osotu zenuten zuen argazki talde hau?

M.- Bi urte dela, interesa gorantz ziahoan, eta materialeā ere eskuratzen gandoazen banaka-banaka. Hiru kamera erosi zian eta hola egin ziaгу aurrera.

A.- Zergatik utzi duzue arranketa? Oker ez banago, utzia duzue arranketa eta...

M.- Ba, bai, utzia ziaгу arranketa, zeren konturatu baikara, azken urteotan adi bidez, ez direla ikusten neurri dexenteko arrainik gure kostaldean. Hori urpeko arranketarien kontua dela uste ziaгuk, eta arrazoiak zitiagu hori pentsatzeko.



Gure kostaldeetan ez da neurri dexenteko arrainik ikusten. Hori urpetako arranketaren kontua dela uste dugu.

ALBERTO JAVIERO

Ekipo berri batek 160.000 pzta balio du, zaharra edo kanpoan erosita gutiago litzateke.



EUSKAL HERRIA

A.- Ekologistak al zarete?

P.- Bai, alde honetatik bai.

A.- Zer gustatzen zaizue gehiago, fotografia ala itsasoko fauna,edo flora?

F.- Ba,... ene ustez fotografia, fauna eta flora horren berri emateko medioa dateke.

A.- Eta biologoak, esan dezagun... hau da, teorikoki itsasoko biziaz interesaturik daudenak, harremanetan daude zuekin ala ez?

R.- Bueno, zinez, geu gaituk haiengana jotzen dugunak, eta jende interesatuaren bila giabiltzaanak biologiazko maila honetan, ea aurrerantzean adibidez, gure kostaldeko biziazen istudio bat edo beste egin daitekeen edo.

A.- Orduan, pentsatu behar dugu, pertsona hauek ba dutela materiale aski, ez da?

R.- Ba, ez, kasik ez ziate materialerik. Izan ere, duten materiale apurra "fosildurik" ziate. Fosilak direlako, alde bate-

rik, eta zaharxka delako bestetik. Materiale klasikoa ziate, baina gaur egun ez zio balio, Biologia, istudio serioztat jo duen ezein pertsonarentzat.

M.- ... eta konexio falta handi bat ziagok, eta pertsona hoiek onurarik atera dezakete fotografietatik.

A.- Zer da zailago, urpekari bat fotografatu egitea ala fotografo bat urpekari bihurtzea?

F.- Ba, zalantzarik gabe, zailago ziaioke fotografoari urpekari bihurtzea. Urpekariak, aitzitik, kamera hartzea besterik ez zik, jaitsi urpera eta disparatzea. Ondoren, ondorioak ateratzea eta hobetuz joatea. Edozein fotografok zailtasun handiagoak zitik urperatzerakoan, materialeak, ekipoak, eta trebakuntza... urpean gustora aurkitu arte behintzat. Eta horretarako denboratxoa behar duk, dudarik gabe.

A.- Zer proposatuko zeniekete zuek, itsaspearenganako kezka edo interesa

duen pertsonari, edo halako fotozale bati musu igerian ikasteko?

M.- Musu igerian ikasteko? Ba, mundu guztiak egiten duena, betaurreko batzu, oinetarako hegalak eta arnasarako hodi-txo bat, eta murgilean joan dadila ur azaletik zehar, behean diren gauzak ikusten dituelarik. Gero entrenamendu pixka bat eta...

A.- Hau, lehen urratsa dateke. Zuek aspaldi eman zenuten urrats hau, ez da?

M.- Guk... u ... botila gabe ekiten genioan musu igeriari eta urpeko arranketari, egoera berri honi eutsi baino iehenago. Baina fotoak egiteko, ia beharrezko duk ekipo autonomoa eramatea, aire konprimatuz beteriko botilak eramatea.

A.- Zenbat balio du ekipoak? Zenbat kostatuko litzateke?

M.- Garesti xamarra duk. Garestitxoa duk hemen, beste alde batzutan merkeago duk. Baina, ekipoarena ez duk problema nagusia, adaptatzearena baino. Norbaitek, gauza hauetan interesa badu, musu igeri egiten ikasi behar zik. Musu igeri egiten ikasi ondoren, orduan pentsa dezake ekipo on bat edo kaxkarrago bat erostean. Eta zinez zaleturik dagoenak aurrera eginen zik. Ez dezala norbaitek ekipo osoa eros besterik gabe, eta bi hilabete geroago, bada, aspertzen dela eta...

A.- Orduan...?

F.- Orduan, birika hutsezko musu igeriaz ohitu behar zik, eta ikusi ea gustatzen zaien. Eta geroago, musu igeri autonomoan trebatu ikastaro baten bidez, hemen Bilbon, CEVASen egiten dituzten bezalako ikastaro batetan.

A.- Beno, toki bakoitzean, urpeko ekintzen federazioari atxekitako klub desberdinetan...

R.- Bai... Bueno, titulua ematen duena, Marinako Komandantzia Militarra duk; Federazioak, segurtatzen du, urlien tokitako klubean ikastaro bat egin duen pertsona batek, urpekaritza autonomora saiatzeko gaitasunik duen ala ez duen segurtatzen du.


A.- Beraz, karnet bat behar da musu igerian ekiteko.



R.- Ba, bai. Formalismoetatik gain, segurtasun bat ere ba delako, urpekariarentzat.

A.- Beraz, edozeinek ikas dezake musu igeri egiten. Hori bai, zaletasuna behar du. (--Horixe.) Baina ez diguzue esan numerotan zenbat balio duen ekipo batek. Berriz galdetzen dizuegu (numeroak egiten ditugu).


M.- Kalitatezko argazkiak egiteko behar den ekipoak... gutienez ehun eta berrogeitamar mila pezeta inguru balio zik.

| | |
|------------------------------|---------|
| Hara nola: | |
| Kamera | 50.000 |
| Flasha | 25.000 |
| Esposimetroa | 5.000 |
| (Italian, hemen ez baitago) | |
| Trajea eta hegalak | 20.000 |
| Botilak | 45.000 |
| Gainontzekoak | 20.000 |
| Denetara | 160.000 |





Kutsaduraz, egunen batean, argirik gabe geratzen direnean, hil egingo dira.



Noski, hau kostatuko litzatekek, hemen erosten badugu, eta ekipo berria erosten badugu. Kanpoan, noski, gutiago izango litzatekek.

A.- Irabazi eskasak dituen pertsona batek, nola eros litzake? Zer pausu eman beharko litzuke?

M.- Lehenbizi, oinarrizko ekipoa erosi beharko likek, betaurrekoak, hegalak eta hoditxoak, ea gustatzen zaion ikusteko, lehen esan dugunez. Gustatzen bazaio, trajea erosi beharko likek, hotzaren babesgari eta ahalik eta denborarik gehien irauteko urretan. Eta orduan, klubeko lagunaren bidez edo, inoren botilak erabiliz... Lor daiteke... hau da, ekipoa dutenekin joan musu igeri egitera, fotokamera prestatu bat erabiliz... Adibidez, bost edo sei lagun badoaz, hiruk argazkiak egin ditzakete, eta besteek muestrak bil ditzakete, edo...

A.- Zuek egiten dituzuen argazkiek ba dute salmentarik? Ba al dute irten bideirik ala helburu altruistak al dituzue?

M.- Orain arte ez zizkioagu eman baliapiderik. Geure atsegingarri izan duk guztia. Nahi geniake bide komertzialen bat aurkitzea, eguneroko gastuak nolabait arintzeko edo. Hau duk, errolioak eta flasharen bonbilak etabar.

A.- Urpeko argazkaritzaz landa, eta urpeko arranketaritzaz kanpo, beste ekintza batzu ere ba daude, ez da?


F.- Orain ba da beste ekintza bat ere, "orientación subacuática" izena daramana. Txapelketa batzu egiten dituk, baina kirol hutsezko kutsua duen zerbait duk. Guk geuk, beste modu batetara ikusten dugu hau guztiau, itsasoaren hondoa istudiatzea alde desberdinetatik. Adibidez, hondakinak ateratzea eta Biologia. Hondatutako untxiak edo-eta beste edozer lokalizatzea. Batzutan, pentsaezinekoak aurkitzen dira. Gutxi dela, motor atal bat aurkitu genian oso-osorik, eta gainera gure untxitxoarena bezalakoa zuan.

A.- Birpopula daiteke itsaspea, bizia gultzean ari den kostaldeetan?

R.- Bai, bai. Adibidez, han diagok Medas aldea Gironan: han, urte batzu direla, eragotzi zuten urpeko arranketa. Ez arrantza, urpeko arranketa baino. Orduan, han ikusten diren arrainak inon baino handiagoak dituk eta gainera askoz ere fidakorrakoak dituk eskutik jatera etortzerainokoak; eta hori pentsa ezinezkoa duk urpeko arranketa egiten den tokietan.

A.- Hemen Kantaurin ez dago honelako lekurik, ez da? (-Ez, ez zegok) Eta urpeko arranketa ere ez dateke biziaren etsaierik handiena.

M.- Itsaspeko arranketak, arrainari hurbiltzeaz tajutzen den arazoa mamitzen zik. Besterik ez. Beste arranketa eta arrantza teknika batzuk askoz ere oker handiagoak egiten zitek. (-Eta kutsadurak?) Kalterik handiena horrek egiten zik, kutsadurak algak eta aukak sakonera-go joatera behartzen zituk kutsadurak. Eta horrela, egunen batean, argirik gabe geratuko dituk, eta argirik gabe geratzen



direnean, ba, hil eginen dituk. Irtenbiderik gabe aurkituko dituk: hau duk, gorantz badoaz, kutsadurak hilko zituk, eta beherantz jotzen badute, bizirik irauteko argia faltatuko ziaie.

F.- Hauxe duk oinarrizko arazoa. Lehen mailako bizia faltatuko denean ezingo dituk birsortu beste espezieak eta itsasoko biziak, galera handiak jasanen zituk.

A.- Zer eska zeniezaieke agintariei?

F.- Isurketak kontrolatzea. Ez isurgai organikoak, azken batez, erraz birziklatzen baitira, baina batez ere, inorganikoak, paperoletakoak adibidez. Eta batez ere, untxiek beren tankeak garbitzerakoan, korronte bortitzak diren alde egokietan egin dezatela, kostaldetik urrun, berau ez alferrik galtzeko.

A.- Eta urpekari zaletuari?

M.- Urpekari zaletuei, ezin geniezaioke gehiegirik eska. Zeren arranketaria baldin bada, arranketan segituko duelako. Baina bai, kontzientzia pixka bat har dezala. Batzu ez dituk konformatzen lau kilo arrain harrapatzearekin zortzi harrapa zezakeenean, eta gero arrain hoiakin ez dute ezingo, hauzoari erregalatzea ez ba-



da. Edonor konforma daiteke bi edo hiru arrain eder ateratzeaz, ene ustez, eta hauzoarekin bestela bezain ongi geratu.

A.- Eta jendeari oroharki? Eta batez ere itsaspeko biziaren arduraturik direnei?

M.- Ba, kontu egin dezatela problema hauetaz eta indar agintarien aurrean etab... (-Eta zuen lana ere probetxa dezatela). Horixe, balia gaitzatela, zeren fotografiarekin zenbait kasu salha baitaiteke, Eako paperolaren kasu adibidez, bere hondakinak itsas ertzean bertan isurtzen baititu, inguru guztia kontaminatuz.

Honetan, itsasoko biziaren arduraturik dauden pertsona guztiek ekin dezakete.

A.- Emaiguzuez, bada, zuen helbideak gure irakurle goaren artean zuekin harreman jarri nahi duten guztiei eskain-

RAFA PAZ 94-433 34 79 (arratsaldeetan) eta MIKEL ESCRIBANO 94 432 85 94 (lan orduetan).

Normalki, aurretiaz jasotzen dugu egurraldiaren eta itsasoko giroaren berri. Batez ere, hemen Kantaurin ezin pentsa daiteke urpeko argazkitan, itsasoa ondo ez badago. Itsasoa ondo dagoenean, larunbatez irteten gara, eta Santandere aldera jotzen dugu, Rafak Kastren duelako etxe bat, eta hantxe gordetzen dugulako gure untxitxoak eta ekipoa. Botilak Bilbon betetzen ditugu, CEVASek daukan konprimagailuan. Orduan, larunbatez dena prestatzera saiatzen gara, igandean itsasoratzeke. Adibidez, azkenekoz, Noja eta Islares bitartean aritu ginen. Igerian joan ginen, musu igeri egiteko lekuraino, eta hara heldu ginenean, 12 metrotako sakonera murgildu ginen. Gurekin etorri zen Algortako algologo bat, Txema Gorostiaga, beste tesina -algei buruz- prestatzen ari dena, eta bere biziko lehen aldiz murgildu zen botila eta guzti. Harpe ikusgarri bat zeharkatu genuen, inolako arriskurik gabe, eta algak eta abar ugari ikusten hasi ginen, eta erreportaia hau janzen duten argazkiak egiten. Egon ginen sakonera, bi ordutarako airea generaman, baina ordubete inguru iragan zenean, bat edo beste hozturik zegoenez, eta gainera, murgilean igeri eginez itzuli behar ginenez, bukatu egin genuen gure foto ekinaldia. Oso polita izan zen, Mediterraneoetik baintentzen.

Itsaspean, lehengotan ongi aztertzen da ekipoa, ez hestuegi ez lasaegi, betaurrekoetan urik ez dadila sar etab... Dena ondo dagoela ikusi ondoren, kamera, esposimetroa eta fasha frogatzen dira, diafragmak eta belozitateak egokitu eta begiratzen hasi.

Normalki, binaka joaten gara, bata bestea ez ostopatzeko. Eta mimikaz baliatzen gara zerbait komunikatu behar diogunean elkarri, baina ez legoke gaizki gor-mutuen mintza moldea ikastea.

J. Etxebarri



Eta honela agurtu gintuen itsas-foto gizonak.

NICARAGUA

Azken aldiotan hitz asko egin da Nicaraguako iraultza izan dela kausa, eta gehienetan, holako tristetasun bat nabaritu da hango gertaeren berriak jasotzean.

Hasteko, sinestezina zirudien sandinotarren (azkenean nikaraguan guztiak izan ziren sandinotarrak) garaipen militarra U.S.A.-k parte hartu gabe; baina nahiz eta marineak hurbil-hurbil izan eta erasotzeko, Pentagono-ko aginduak itxaroten, erretiratu egin ziren.

Somozak amerikarren laguntza oso-oso izan zuelarik eta beraien morroi leiala izanik, nola izan zatekeen momentu hantan bertanbera utzirik izatea?

Galdera horri erantzuteko mila argudio entzun dukegu eta hortxe datza hain zuzen Nicaraguako iraultzari buruz izan diren erreserbek gakoa.

F.S.L.N. delakoak, oso zuhur jokatu omen du hasieratik beretik, arriskutsuegi lirudikeen jarrera politikorik hartu barik eta, honelatan, behin behineko eklektikotasunaren bidexkak posibilitatuz.

Joku berorren fruitua dugu Nazional Berreraiketarako, Gobernu, eta honek eraman duen politika posibilista, zeinek kanpoko gainerako gobernuetarako (gehienak faxistak direlarik) imajina de-

mokratikoa bai, baina ez komunismoaren mozorro beldurgarriaz jantzirik, eratu du. Eta horixe da nahasten gaituena, Nicaraguako iraultzaren benetako jitea zein den jakitea.

Ba dira sintoma batzu berriz, prozesu iraultzailea bide onetik zuzentzen dela adierazten digutenak:

Ekonomi arloan, finantzar kapitalaren kontrola, nazionalduriko bankaren bidez. Eta hauxe da sistema kapitalistaren arima eta esentzia, haren boterearen pean dagoenean; eta heriotza berriz, herriaren eskutan gertatzen denean. Banka, botere iraultzaile baten eskuz delarik, kapitalaren erabilera eta banaketa kontrola daiteke eta momentuko beharren arabera erabili.

Botere honetako ondorio legez dugu, balio nominal haundiko biletan (1.000 eta 5.000 kordobakoak) desdirupena; zeinek dirutza izugarria itzulerazi baitzuen Nicaraguarako; kanpoko somozatarren eskutan eta yanqueen banketxeetan kokaturik zetzana. Eta jakina, dena Nicaraguako herriari ebatsia.

Operazio honek, ez zukeen izan zuen arrakasta izango banka ez balitz nazionaldu. Somozatarren ondasunen nazional-

kuntza eta bertan bertako komunitateetan eginkako nekazaritzaren kolektibapena, iraultzak hartzen diharduen bidearen lekuko eta ohargarri dira.

Alor militarrean, yankeen eta delako "Paktu Andino"aren barnean aurkitzen diren herrien (Venezuela, Colombia, Ecuador, Peru eta Bolivia) presioak eta mehatxuak, profesiodun armada bat egin zedin (betiko ezaugarriekin: Kapital eta burjeseriaren zerbitzurako, jakina eta momentua zelarik kausa erreakzio eta imperialismoaren zerbitzurako ere) izan arren; haren lekuan, Sandinotar Herri Armada egin da. Hau da, Sandinotar Frontea, eta ez Barreiraketarako Gobernu, da botere militarra duena, herri lorpenen zerbitzurako Gobernu, da botere militarra duena, herri lorpenen zerbitzurako; eta Kapitalaren kontra.

Gero eta neurri gogorragoak hartzen ari dira iraultzaren barneko etsaien aurka eta, aldi berean, herria prestatzen da kontrairaultza gatazkatzeko. Nazioarteko arloan, herri iraultzaileen eta nazional askapenerako mugimendu iraultzaileen onepena, batez ere, nikaraguar iraultza elkartzasun nazional iraultzaileen konsideratzea permititzen du.



Gero eta neurri gogorragoak kontrairaultza gatazkatzeko.

AZ BERRIRO



Sinestezina zirudien, sandinisten garaipen militarren aurrean, USAk eskurik ez sartzea.

Haren pittinka-pittinkako eta etengabeko elkartasunezko hurbilpena cubarekin eta haren urruntzea (paulatinoa ere, baina gero eta handiagoa) amerikar gobernu burjesen laguntzarengandik, mintzatzen ere zaizkigu prozesuaren norabideari buruz.

Nicaraguak gaitzetsi egin du edonola baldintzapeturiko "laguntzarik", zeren nahiz eta egoera latz-latza izan, ez baitu nahiz egiten eta honexegatik beronengatik, hastean benetako azterketa somozismoa lurperatzen laguntzeko izan zena, orain irribarrezko laguntza bihurtu da.

Cubak bere laguntza nabariki gehitzen bitartean, Paktu Andino-koek Salvador, Honduras eta Guatemala bisitatzen dituzte. Costa Ricak, profesiodun armada baten prestakuntza hasten du, Inoiz ukan ez duena.

Somozismoa egotzen lagundu zuten herri berberak, hesi bat ari zaizkie ipintzen nikaraguar prozesu iraultzaileari eta Ameriketako gainerako mugimendu iraultzaileengan izan dezakeen eragipenari.

Hatz hauk guztiok guztiz determinanteak ez izan arren, arras esanguratsuak dira nikaraguar iraultzaren bidea ezagutu ahal izateko. Joandako prozesua, orain-

goa eta gerokoa argi ikusten dira:

1. Imperialismoaren kontrako indar guztiak elkartzen dira Nicaraguan, imperialismoaren ordezkaria birrintzeko, somozismoa halegia.
2. Burjeseria inperialista suntsitzen da, Latinamerikako burjeseria antinperialisten laguntza handiz.
3. Nicaraguako burjeseria nazionala ia ia desagertzen da, haien fabrikak eta ekonomia boterea birrinduta geratu baitziren gerraren erruz.
4. Herri botereak hartzen du egoreraren eta mozkinen kontrola, Latinamerikako burjeseriek amesten zituzten mozkin berak hain zuzen. Eta lortu ez zituelarik, beren laguntza berreraikuntzarako erretiratzaren dute apurkarapurka; sistema antikapitalista bat sortzen ari den heinean eta haren eragina hazten Ameriketako prozesu iraultzaileengan.

Horrelaxe hasten da politik ingurapena, alboko diktadura inperialistei (Salvador, Honduras, etab.) zuritzen eta laguntzen nahiz, haien gobernamentuak "demokratizatze" eta horrelaxe matxinada iraultzailea ekiditeko.

Hurrengo urratsak:

- a) Nicaragua kontrako hesi psikologiko bat sortzea (hasita degoeneko), latinamerikar herriak berari kontrajartzeko.
- b) Barneko erreakzioa piztea, gobernu iraultzailea diktatoriala deklaratzeko.
- c) "Desestabilizapena" bizkortzea eta gobernu "demokratiko" bat sortzea, Venezuela, Ecuador edo Peru-ko eratakoa.

Honek guztionek, geroaldi gatazkatsua eskaintzen digu Latinamerikarako; eta bereziki Caribea, irakindegi suttsua izango bide da.

Beren independentzia (Holanda, Frantzia, Britainia Haundia... etabaren hatzparrengandik) lortzen ari dira hango irlak, cubatik hasita eta Jamaica, Santa Lucia eta Dominacatik jarraituz.

Herri ez-lerrotuen erakundeak, Fidel Castrok zuzendurik, laguntza izugarria eman dakieke ere, hango herrien independentziarantzko mugimenduei.

Hurbiltzen ote zaigu Bolivarren eta Marti-ren eta Sandino-ren eta Che Guevara-ren etabaren iraultza kontinentalak???

Zalantza izpirik gabe, hurrengo hamandaka oso esannahitsua izango zaigu.

Karlos Santisteban

ERTAFRIKAN

FRANTSESAK ESKUSARTZEN

Nazioen Biltzarrean esanikako hitzaldian, Kanpoko Arazoetarako frantses ministrariak nolabait, aldez edo moldez adierazi eta zuritu zuen frantses armadaren eskusartzea Ertafrikan, Bokassa enperadorearen gobernamendua azpiraraztearren. Kigaliko konferentzian, ertafrikarrek gobernamenduaren basakeriak salhatu eta kondenatu zituzten; Frantziako Gobernuak bere laguntzari uko egin zion, ondoren ertafrikarren beren eskabideei eman bazien ere baietza. Kondiziopeko laguntza: Dacko lagundu zuen Errepublikaren lehendakaritza eskuratzera, baina Angel Patasse, gobernamentuaren beste partida, kontrako, jarkitzaileari eragotzi dio herri-raztea.

Frantses Gobernuak jauskariak edo parakaidistak igorri ditu; jauskariak, ordenuzain gisa, polizi ekintzatan dihardute eta esana denez, zenbait libiar hatzeman eta herrialdetik at bidali dute eta frantses enbaxada inguratzen zuen jendaldeari oldartzen zaizkio. Jendaldeak Patasse itzultzea eskatzen zuen, zein Parisen baitago frantses poliziak geldierazita eta bere herrira joatera eragotzita. "Bahiturik nago" dio Patassek. Mitterrandek, egin dituen deklarapen batzutan, Bokassari urtetan barna emandako frantses laguntza agerterazi du. Bestalde, oraingo aldaketak "kontzientzia kulpant" bat bakarrik estaltzen duela jakinerazi du.

Frantses Gobernuari, lehenean eskerronaren merezient omen zena Ertafrikan, oraintxe akusatzen zaio estatu-kolpea herrialdearen onuragarri ez, bere profeiturako baizik prestatu izana, gobernamentu berriaren buruzagitzan haren fidantza-peko gizona jartzeko. Frantziaren eta Mendebaldearen aldeko politika burut dezakeen gizona, nahiz eta berrikitan berrezarritako Errepublikaren onuraren kontra doakeen.

M.A.

Frantses gobernuak bidali parakaidistak polizia lanean



ALEMTEJOKO LURRA ODOLEZTATURIK

1974.eko Apirilaren iraultzak aldean ekarri zuen zenbait bahipen, desjabetze eta nazionalpen, gestio batzordeei fabrika eta entpresa emanaldi eta lur banaketa, honekin batera halako sozialismo autogestionari bat bideratzen ziharduelarik. Pixkanaka iraultza iraungiz joan zen; kontrairaultza abiatuta zegoen eta ondorengo gobernuak, lehen bahitu eta nazionaldutakoa bihurtzen hasi ziren. Lurjabe zaharrak, lehengo kapitalak hasi ziren etortzen, aldi berean Iraultzaren Kontseilutik eta gobernagailuetatik lekueraziak zirelarik Apirilaren "kapitainen" izenak. Nork erabaki zuen lurren itzultzea? Mario Soaresen gobernu sozialistak eta bere nekazaritzarako ministrariak, Barretok: Portugaleko Alderdi Komunista soilik jarki zitzaion parlamentuan. Parlamentutik at, lurrez jabetutako nekazal langileak, ehun mila inguru zirenak.

Itzultze hauk negoziaketaren bidez burutzen saiatu da, nekazarietan kondizio eta etxebizitza hobek eskainiz bestalde. Negoziapekan huts egin duenean, bortxarenak bidez egotziak izan dira. Eta azkenaldi hontan bortxakeriak gaina jo du: Errepublikar Goardia Nazionala harmaz oldartu zitzaizen lurra kitatu nahi ez zituzten nekazal langileei. Eta bi hil zuen Goardia Nazionalak.

Portugalek, odol gabeko iraultza burutuaz harro baitzegoen, ba du bi hil honez gero, kontrairaultzak erhanik. Ba da protestarik, gaitzespenik, manifestaldirik eta lanuzterik herrialdean barna. Eskuinak eta ezkerak jazotakoaren kondenu egiten dute, baina Maria Lurdes Pintassilgoren Gobernu ezkerkabestu eta eutsi, eskuinak gatazkatatutakoa bortxabidera jo duena izan da.

M.A.

Lurren itzultzea, gobernu sozialistaren erabakiz.



ERRUSIAR EMAKUMEA:

Udako oporraldietan Errusiara joan ginenontzat, emakumeak edozein lanetan iharduten zutela konprobatzea, gauza harrigarrietariko bat izan zen. Berehala gure argazki makinak ateratzen genituela, aitortu behar dut, lotsa apur batez... KLIK! neska estudiante batzu, enborrak leku batetik bestera eramaten. KLIK! beste argazkia, autobusa gidatzen zuen emakumeari, haur txiki bati biberioa ematen autobusaren geldiene batetan... KLIK! KLIK! Aldamioetan lanean zeuden emakumeei eta emakume kalegarbitzaileei... eta emakume igeltseroei...

Argazkilari sutsuak bihurtu ginen, ez baikenuen errealitatearekin harremanetan jartzeko beste biderik.

Esan zigutenez, egun, soviatar errepubliketan, emakumegoaren o/o 90ek, etxetik kanpo iharduten dute. Eta guk ikusi genuenez, hala da benetan. Trenetan, metrotan, autobus edo tranbietan, museoetan edo bulegoetan, emakumeak giza produkzioan erabat murgildurik zeuden.



Ezkontza argazki denda



Emakume kale garbitzaileak

BAINA...

Zenbait arlotan, nabarmenagoa da oraindik emakumezko presentzia hau: o/o 85 medikuntzan, o/o 74 irakaskuntzan. Baina, ba dirudi lanbide hauk gero eta prestigio eta soldata guttiago dutenatarikoak direla, hain zuzen. Kasualitatea ote?

Esan zigutenez, "lan berdinari, soldata berdina", oso zorrotz betetzen da. Baina, zergatik ez dira emakumezkoak zuzenbide postuetan hain ugari ikusten?... Hauda, nahiz eta duela hirurogei urte sozialismoa eraiki, oraindik emakumeen presentzia, beheraka, guttituz doa goi mailetara igaten den neurrian. Goiengoetara iristerakoan agertzen ez direlarik. Kasu konkretu bat: Nahiz eta emakumeek osatu zientifikoaren artean o/o 42.a, Zientifikoaren Akademiako berrehun eta lau bazkideetatik, 2 bakarrik dira emakumeak.

Lantegietako zuzendarien artean, o/o 12 bakarrik dira emakumezkoak. Eta harrigarria da horien falta soviatar gobernuan edo eta diplomazian.

ALEXANDRA KOLLONTAI GOGOAN ZINTUDAN

Tamalez, urteek ondo frogatu dute, soviatar sozialismoak huts egin diola emakumearen zapalkuntzari. Urriako Iraultzaren garaian, emakumeen askatasuna helburu nagusienetariko bat zen. Inork ez du hori ukatzen. Hor ditugu, Alexandra Kollontai edo Klara Zetkin edo beste emakume batzu lekuko. Horien ideia iraultzaileek ez zuten urte asko iraun. Familia tradizionalaren kontra zuzen jotzen zutelako eta nolabaiteko gizon-emakumeen arteko harreman librea eta berriagoak sortu nahi zituztelako. Emakume horien arrasto gutti ikusi dugu gaur egungo Errusian. Leninen hainbat museo eta Iraultzaren museo bisitatu ondoren, Moskuko "Leninen Museoa"n, Alexandra Kollontairen argazkitxo bat bakarrik ikusi ahal izan genuen. Gure gidari-interpretatzaileak ere, ez dut uste iraultzaile horien existentzia ezagutzen zuenik.

Iraultzaren lehen urteetako errusiar gertzea astindu zuten ideia askatzaile haiek, 1979.eko Errusian zertan konkritatzen dira?...

HIRUROGEI URTE ETA GERO, HAU

"Emakumearen eta sukaldearen arteko banaketa, Eliza eta Estatuaren arteko banaketa bezain garrantzitsua da..." Gogoratu ekartzen dut, Alexandra Kollontairen esaldi eder hau. Zeren, egun, soviatar errepubliketan errealitatea hauxe omen baita... Nahiz eta estatuar zerbitzuak (Haurtzaindegiak, jatetxeak, etabar) ka-

Amets ondoko kronika xumea

Iñaki Muniategiri eskainia

pitalist nazioetan baino ugariagoak eta eskurakorragoak izan, soviatar emakumea da, etxea bere gain hartzen duena. Hala-ber, bere gain daude etxeko lanak eta haurren ardura. Hau da: lan eta jornada doblea. Emakumeak, eguneko lana bukatu ondoren, etxeko lanetan jarraitu behar du, sozialismoak ez baitu lortu sukaldetik eta familiar erantzunkizunetatik emakumea askatu.

Familian, esan dudanez, ba da harritu ninduen besterik: Hainbat eta hainbat eskonberri zuriz jantzita, eskuan lore sorta zutelarik... Dirudienez, lore sorta horik gerran hildakoen monumentuetan jartzeko ohitura dute... Eta hainbat bider ikusteko aukera izan genuen. ELizara beharrez; Ezkontza Jauregi delakoetara joaten dira, non ospatzen baita ezkontza zeremonia. Eraztuna eta guzti. Eta gero, argazki dendara (ikus ale honetan) ezkontza pottolo horietako bat ateratzera... Eta zori pixka batez eskaparatean agertzeko.

KOMUNIKAZIORIK EZA

Normala denez, guztioi gustatuko ziztzaigukeen, honetaz eta beste gauza askotaz hitzegitea, gure bidaia horretan aurki-



Emakumeak lanean.



Allexandra Kollontai-ren argazkia, Moskuko Lenin Museoa.

tzen genuen jendearekin. Baina hizkuntz arazoek galerazten ziguten. Gidari-interpretazailerik ez genuen. Neska gazte eta liraina. Takoi eta gonaduna. Oso ponpoxa bera. Eta hasieratik bukatu arte lagundu ziguna. (Ezta, Iñaki?) Beraizan zen, soviatar gizartearekin lotzen gintuen katea bakarra. Katea ofiziala, gainera. Beharbada, horregatik zenbait galderari erantzuteko, iheskor xamarra agertzen ziztzaigun gure gidaria.

Horregatik, Vida, 21 urtetako neska, lantegi batetako langilea, bere aita argentinosa eta erdara poliki menderatzen zuen aurkitu genuenean, galderaz josi genuen. Pentsa ezazue zenbat eta zenbat galdera egin genion Vidari... Sovietar emakumeak dagozkionak bakarrik aipatuko ditut oraingo honetan eta konturatuko zareten bezala, ia "interrogatorio policial" bat dirudi restaurante batean egindako elkarrizketatxo honek... Galderak, erantzunak baino askoz luze eta mardulagoak baitira. Baina, tira!, Anaitasunarako ekartzen badituzte vidaren hitzak, 21 urteko soviatar emakume gazte arrunt baten ahotsa interesgarria izango dela-koan egiten dut.

VIDARI EGINDAKO ELKARRIZKETA

A: Vida, erakutsi diguten eskola, neska mutilena zen. Hemengo heziketa mixtoa al da?

V: Bai...

A: Heziketa mailan, desberdintasunik al dago neska-mutilen artean?

V: Ez, ez... Denok jasotzen dugu heziketa berbera.

A: Baina ez daude neskatoentzako gai batzu eta mutilentzako beste batzu?

V: Beno, bai... Neskatoentzako josi eta holako aktibitateak eta mutilentzako, tailer lanak eta...

A: Eta etxean, neska eta mutilen tratua berdina al da?... Adibidez, neskatoei, mutilei adinbateko askatasuna ematen al zaie?

V: Bai.

A: Eta etxeko lanak, neskatoentzat bakarrik uzten al dira, guri gertatzen zaigun bezala?

V: Beno, gure etxean behintzat, denok tratua berdina jaso dugu...

A: Eskolan, sexual heziketarik ematen al da?

V: Ba, ez. Horretaz familia arduratzen da.

A: Hemen, gazteek, sexual askatasunik ba al dute?... Elkarrekin bizi al daitezke? Komunitaterik ba al dago?

V: Ez. Nik dakidalarik ez. Estatuak, etxebizitza familiei eskaintzen die eta horregatik, gazteek elkarrekin bizi nahi izan balute, ezin izango zuketena...

A: Eta gazteen komunitaterik edo antzeko zerbaite?

V: Ez, ez dut uste dagoenik. Nik behintzat ez dut ezagutzen eta ez dut inoiz entzun.

A: Gazteen artean, ezkondu aurreko harremanik ematen al da?

V: Orain hasi dira...

A: Egia al da, homosexualitatea sei urtetako gartzelaz zigortua dagoela?

V: Bai!

A: Jendeak ez al du onartzen?

V: Ez! Ez! ... Oso gaizki ikusita dago.

A: Kaleetan, ezkonberri asko ikusi dugu. Oraindik elizatik, inork ezkontzen al da?

V: Orain gehiago. Modan jarri delako. Baina orain arte ez... Elizatik ezkontze ori moda bat besterik ez da.

A: Dibortzioa, askotan ematen ohi al da?

V: Nahikoa...

A: Eta seme-alabak?

V: Seme-alabak, beti amarekin geratzen dira, kasu berezietan ez ezik... Adibidez,



**Ezkontza
jauregitik irteten.**

burutik ondo ez dagoenean, edo edariari emana denean...

A: Esan digutenez, bikoteek hemen seme-alaba gutti dute...

V: Normalki bat edo bi.

A: Eta nola kontrolatzen dira jaiotzak? Antisorgailuei buruz, zabalkunde eta heziketarik ba al dago?

V: Antisorgailuak ba daude... Eta Seguritate Sozialak ordaintzen ditu. Baina jendeak ez ditu gehiegi erabiltzen...

A: ... Orduan, abortu asko al dago?

V: Bai. Bost hilabete arte aborta daiteke. Hemen, neure hirian, norbaitek esan zidan egunoro 50 abortu ematen zirela...

A: Baina, halere, Gobernuak seme-alaba ugari izatera bultzatzen omen du, gauzak asko errazten omen ditu...

V: Bai, bai... Emakume ahurdunak, haurra izan aurretik 5 hilabeteko oporrak izan ditzake eskubidez eta urtebetekoak, haurra izan ondoren...

A: Gobernuaren aldetik, jaiotzak ugartzeko, zeintzu bide gehiago erabiltzen ditu?

V: Beno, etxebizitza handiagoak eskaintzen ditu... telebistan propaganda egiten du...

A: Ama ezkongabeak eskubide berdinak al ditu?... Gizarteak onartzen al du ama ezkongabea?

V: Bai, bai.

A: Hemen, ba al dago emakumearen askapenerako mugimendurik?

V: Zer da hori?...

Mariasun Landa



JAKIN

EUSKAL KULTUR ALDIZKARIA

Hiruhilabetero

Hamaikagarren
zenbakiaren gai nagusia:

Martxoko Hauteskundeak
Euskal Herrian

Mikel Zarateren bizitza
eta lanak

—o0o—

900 pta. urtean.
275 alea

Eskabideak eta harpidetza:
Gral Mola, 23, 1-
DONOSTIA
Tel.(943) 271713

—o0o—

900 pta. urtean.
275 alea

Eskabideak
eta harpidetza:
Gral. Mola, 23-1.º
Donostia
Tel. (943) 27 17 13

anaitasuna

HARPIDEDUNA!

Gurekiko harreman guztietarako aipa ie-
zaiguzu, zure zenbakia.

BIZKAIA
HAMABOSTEROKOA

URTEKO ABONAMENDUA:

| | | | | |
|----------------------------|-------|--------|-----|---------|
| EUSKAL HERRIA: | 1.200 | pezeta | /75 | F.F. |
| ESPAINIA eta FRANTZIA..... | 1.500 | " | /93 | " |
| EUROPA eta AMERIKA..... | 1.600 | " | /23 | U.S. d. |
| Beste herri guztiak..... | 1.700 | " | /25 | U.S. d. |

ALDIZKARI hau IRAKURRI NAHI baduzu, bete
ezazu argi, ondoko txartela eta bidal helbide hon-
tara:

ANAITASUNA

ZABALBIDE 68., BILBO-6

POSTA KAXA : 495

Tfno. bakarra: 94-4335808

Izen deiturak.....
Bizilekua.....
Herria eta Posta Barrutia.....
Barkua eta kontu irekia.....Tfnoa.....

NICOS POULANTZAS HIL DA



1979.eko Urriaren 3an, Nicos Poulantzas hil da. Askori ez dio, seguraski ere, ezer esango izen honek. Zoritxarrez: politikak eta politikeriak inguratu gaitu behar den bezala, gizarteari buruzko beharrezko diren analisi zehatzak alde batetara utzirik: erraxago dirudi politikaren araberaz handik hona joatea, atzokoa iraultzaile zena, gaur kontserbatore bihurtu; ihazko dependentsia egungo autonomiarik la-saizentzat onartu.

Izan ere, Poulantzas baita mende hone-tako marxologo marxista argien eta bi-txienetariko bat. Poulantzasen marxis-moa bi mailatan, gutxienez, kontutan har-tzekoa dugu: filosofia arloan, politika ar-loan. Baina, nor da gaur hil den 43 urte adineko analista hau? Poulantzas Atena-sen jaio zen 1933.ean. Greziako Alderdi

Komunistako partaide, alde egiteko lana izan zuen 1967.ean eta Frantziara joan zen, Parisera, hain zuzen ere. Centre Na-tional de la Recherche Scientifique-n irakasle lehenik eta Pariseko Unibertsitatean katedratiko gero, pasatu ditu azken ur-teok erakusten eta idazten, batez ere.

Poulantzas-en ekarpena textuinguru zehatz mehatz batetan sortzen da: Euro-pan hasiak ziren stalinismoaren aurkako erreakzio ideologikoez bilakarazi zituzten Europan mugimendu diferenteak. Ikus-puntu erreformistatik Stalin kritikatu zen, gogorki gainera. Alderdi politiko txikiagoek, alde, ezkerretatik ematen zioten su. Marx-en gaztaroko eskuidaz-kiak irakurtzen ziren eta Europako ikasle gazteek berpizten zituzten III. Internazio-nalaren lehen orduko teorilariak. "Gizon

berria", "Marximoaren humanismoa", "Marx gaztea eta Marx zaharra", Grams-ci-ren lanak, Garaudy-ren joanetorriak Frantziako Alderdi Komunistan, Marcuse-ren liburuak eta Berkeley-ko Unibertsita-tean sortzen hasten ziren saltsak, Fran-tziako Maiatza, etab., etab.

Zer esan ez, horrelako mugimenduez oinarritu zituzten edo baldintzak ezarri-bederen- eskola inportanteak sortzeko; nahiz eta eskola hauek oso desberdinak izan puntu batetan zetozkigun bat: TEORIAK berak duen indar iraultzailean. Eta teoriari ekin zioten indarrez. Horrelaxe plazara ziren Luis Althusser-bere eskolarekin, Bettelheim eta bere ekipoa eta Poulantzas bera. Azken hau jurista zen, besteak ekonomista bata (Be-ttelheim) eta filosofoa bestea (Althu-

sser). Kontura gaitzen eskola bakoitzak pentsalari aberatsak eman dizkigula (Babilbar, Amin, Emmanuel,... den denak primerako irakasleak).

Metodologia aldetik eskola hauek **estrukturalismoa** onartu dute eredu bezala. Dena den, ez dute nolana hartzen: bakoitzak berea kendu edo eman egiten dion bitartean, dialektika zehatza aplikatzen dute, klase burrukak duela inportantziarik nagusia. Louis Althusser-ek apurtu zuen bai Marx gaztearen historizismoa eta humanismoa, lehenik, marxismoaren dialektikaren eta Hegel-en dialektikaren arteko mugak garbi garbiki ezarri: horrela desegiten du marxismo ofizialaren eskematismo mekanizista. Taldean guztion ondorio gisa aipagarri dugu liburua hauxe: **"Kapitala irakurtzeko"** (1967). Liburu honek mugatu du marxismoa eta bere burua marxistatzat jotzen duten idazleen artean sekulako eztabaidak sortu zituen: hemendik aurrera konponezinezkoak izanen dira liburu honen aldekoak eta kontrakoak. Ni neu aldekoen artean nago, dudarik gabe. Marxismoak gero erabiliko dituen kontzepturik nagusienak hementxe burutu ziren: formazio soziala, produktiorako modua, azpiko eta gaineko egituren arteko erlazioak,...

Poulantzas ere textuinguru honetan hasten da argitaratzen: **"Estatuaren hegemoniaren estudioari sarrera"**, **"Teoria politiko marxista eta Marx eta Deretxo modernoak"**, **"Estatu eta gaur egungo Deretxoaren azterketa marxista eta alternatibaren" izaera**. (Ikus daitekeenez, aipatzen ari naitzaizuen lanen titulu guztiak euskaraz ematen ditut; hala ere, ez dut Poulantzasen lan bat ere euskaratua ikusi). Artikulu guztiok dira gero atezaraziko duen lanik sakonenaren sarrera goxoa: **"Botere politikoa eta klase sozialak"** hainbat aldiz eta hainbat hizkuntzatan argitaratua. Estatuaren problematika ukitzen du bereziki liburu honek: 1968.a zen. Lan hauek erabiltzen duten hiztegia eta nomenklatura oso zaila da irakurle arontarentzat, "ikasiaz" ez bazara. Horregatik nolako mesedea ez ote zigun egin Marta Hamecker-ek Mexikon publikatu zuenean **"Materialismo historikoaren kontzepturik oinarritzkoenak"**. Hau ere estrukturalista, banaka banaka aztertzen ditu liburu pedagogiko honetan kontzeptu guztion esangurak. Garbi gera dadin, dena den, Marta Hamecker eta Nicos Poulantzas puntu askotan baztertzen direla. Esan dezagun, liburu honen arrakasta ikusteko, Mexikon bakarrik 22 edizio

LAS CRISIS DE LAS DICTADURAS

PORTUGAL, GRECIA, ESPAÑA



izan zituela 4 urteko epean. Espainian debekaturik egona garai luzean.

Ez noa ni Poulantzasen lan guztien laburpenik egitera: haien berri emateko leku gehiago beharko genuke eta sintesia ezin da bi lerrotan egin, hain sakonak dira eta. Ez dezagun ahantz **"Botere politikoa eta klase sozialak"** estilo berria kanporatu zuela eta egitura sozialeko maila ideologiko politikoaren analisiari ekin ziola: Estatuari buruzko teoria marxistaren adierazkizuna estudiatu zuen bereziki. Hemendik aurrera zehazten du Klase Sozial kontzeptua, ordura arte edozein modutara erabilia; bloke dominatzaileko klase dominatzaileen bateratasun organizazioa, Estatuaren papera, estatuaren aparailu errepresatzailea, estatuaren aparailu ideologikoak, etab...

Lehen liburua lan teorikoa izanarren, bigarrenaren teoriaren aplikazioa egiten dio kasu historiko bati: **"Faxismoa eta diktadura: III. Internazionala faxismoaren aurrean"** (1970). Alemania eta Italiako kasuak aztertzen ditu banan banan. Formazio sozial bat analizatzeko denboran kontutan hartu behar den modelua

dugu liburua hau. **"Klase sozialak eta botererako aliantzak"**, **"Klase sozialak gaur egungo kapitalismoan"** (1974), Ralph Miliband-ekin eduki zuen polemika ezaguna estatuari buruz, bi artikulutan bilduta dago: **"Estatu kapitalistaren problematika"** eta Milibandena beraren: **"Estatu kapitalista: Nicos Poulantzas erantzuna"**. 1975.ean argitaratu zuen gehienbat korritu izan duen -gure artean, behinik behinlana: **Diktaduren krisia: Portugal, Grezia, Espainia**. Nire ustez, hau dugu Poulantzasen libururik eskasena, eta egia esateko, han aurreratzen zituen gauzak ez dira bete errealitatean. Liburuan nahastan dira, nahiz eta Poulantzasek ez onartu, bi gauza: zientzia maila, politika maila. Politikan, eurokomunismoaren alde jokatu zuen bere bizitzan eta liburu hartako prebisioek Espainiako Alderdi Komunistak zituenekin bat egiten zuten. Han planteiatzen zuena frankismoaren hausturaz, gero zuzendu beharko: **"Horrelako hausturarik gabe diktaduratik ateratzeko gai izatea Espainian, izan da gehienik harritu nauena"** ("El Pais"; 1979-Urr-Sean).

Askotan esan zaio marxismoari ezin duela aurretik jakin zer gertatuko den gero sozietatean eta horregatik ez omen da zientifikoa. Marx-ek berak ez du inoiz horrelakorik esan: bilakaera batetan ez du bilakaera horretako bigarren fasea determinatzen, aurreko fasean faktore determinatzailea zenak. Edozein fasetan gertatzen dira sakoneko aldaketak eta lehen determinatzaile zena, orain menperaturik geratzen da. Nahi eta nahi ez, ez da aurretik gerokoa azaltzen, gerotik aurrekoa baizik: "monoaren anatomiak ez du gizonaren anatomia esplikatzeko: gizonaren anatomia dugu monoarena ulertzeko gakoa".

Beste idazle batzurekin batera, eman zigun Poulantzasek 1976.ean **"Estatuaren krisia"** eta azkenik, **"Estatua, boterea, sozialismoa"** argitaratu zuen 1978.ean. Askok ere askok hartzen dugu gure burua marxistatzat edo marxista leninistatzat, maxismoa lerro bat irakurri gabe eta ia ia III. Internazionala aipatzen badugu zer den hori jakin ez. Beste horrenbeste pasatzen zaio zenbait anarkistari: Kropotkin, Bakunin, Malatesta edo Isaak Puente beste galaxiako izenak zaizkie. Ez, momentu honetan inoiz baino beharrezkoago dugu teoria, eta teorietan, teoria marxistari dagokionez, nahiz Poulantzasekin egon edo bere kontra egon, ez dago dudarik azken hamar urte honetako Europak eman duen pentsalari argienetarikoa bat Nicos Poulantzas dugula.

Pello Salaburu

NICOS POULANTZAS HIL DA

NIKOS POULANTZAS, ESTATU

Parisen, urriaren 3an, berrogeita hiru urte zituelarik, hil da Nicos Poulantzas jakitun gaztea. Marxismoaren teorizatzaile bizkor, gaurko gizarteko botere eta Estatuari buruzko obra sail baten autore zen.

Geziarra jatorriz, gaztetatik Frantzian finkatua, ezaguna zen Nicos Poulantzas. Soziologiako hitzaldi maixu, Paris-VIII, Vincennes-ko unibertsitatean, "Presses Universitaires de France" (PUF) eko "Politiques" saileko zuzendari, arreta handiz begiratutako hainbat libururen autore zen. Nicosen eraginak marxisten eremua gaintzen zuen. Marxista izanik, alderdi komunista grekoaren kide zen. Hala ere, bai ekonomiaz, bai estrukturalismoz, ongi jantzirik, irekirik zituen begiak mende honetako korrante zientifiko guztiengana. Neurri batez, Louis Althusser-en ikasle zatekeen. Halaz guztiz, Poulantzasen obrek "Lire le Capital" en egileak zuzenki aztertu ez zituen eremuak jorratzen ditu, eta, bereziki, Estatuarena. Garrantzia handiko gaia, batez ere kontutan hartzen baditugu azken bolada honetan obratu diren aldakuntza politikoak.

Bestalde Marxen lanek ez digute argi haundirik ematen gai honi buruz. Lerro bakar batzu dira "Louis-Napoleon Bonaparte-ren Brumarioko 18a"n aurki ditzakegunak, horrialde bakan batzu "Frantziako gerla zibila" delako lanean eta beste zenbait ohar han eta hemen sakanatuak, Estatu greko eta Erdi Haroko Estatuaz. Ezer gutxi botereaz eta errepresioaz behar adinbateko teoria osatu ahal izateko.

Hutsune horik gogoan, Marxen jarraitzaile gehienak saiatu dira erantzun bat ematen, baina arrakasta haundirik gabe. Ez Leninek ("Estatu eta Iraultza"), ez Troskyk ez digute argibide handirik eskaintzen XX mendeko bigarren parteko Estatu teknokratikoa ulertu ahal izateko.



MODERNOAREN TEORIZATZAILE,

Hutsune horixe izan da, hain zuzen, Poulantzasek bere obraz betetzen ahalegindu dena. Lehenik "Pouvoir politique et classes sociales" (Maspero, 1968) izan zen, gero "L'Etat, le pouvoir, le socialisme" (PUF, 1978). Poulantzasek ibilbidea instantzia politikoaren aztertze eta sakontze lana izan da. Althousser-en jarraitzaile, printzipio nagusitzat ezarria zeukan, instantzia hori ezin daitekeela izan guztiz independentea, instantzia horrek oinarriak egitura ekonomikoak lituzkeela. Hori horrela, ekonomismoarrek oinarriak egitura ekonomikoan lituzkeela. Hori horrela, ekonomismoaren arriskua gainditu nahian, "surdetermination" (gaindeterminatze) kontzeptua zerabilen estatu boterearen ezaugarri den "autonomia erlatiboa" adierazteko.

PRODUKZIOA ETA ERAKUNDEAK

Bistan da Estatu "orokorki harturik" aztertuko duen teoria globalak ezina dirudiela, lan horrek ekoizpen sistimak, "orokorki harturik", aztertuko lituzkeen teoria beharko bailuke. Poulantzasek, zentzu handiz, Estatu teknokratiko eta interbentzionistaren azterketara mugatzen da, berrogei urtez geroztik, Europako Mendebaldean bezala Ekialdean, izan duen garapena aztertuz.

Eta bide horretan, berak aurkitzen duen ezaugarriak nagusia izan da, instantzia politikoak, produkzio ekonomikoaren prozesuan, izan duen eragin eta eskuharmen gero eta handiagoak. Izan ere, Estatu modernoak ez baita konformetzen zaindari eta begirale izateaz. Estatu modernoak kudeatzaile eta gestionari izan nahi du, batipat. Bere helburu du, zentralizapena ez ezik, planifikapena ere.

Estatuaren aparatuek, lehenago, batez ere, funtzio errepresibo eta ideologikoa betetzen zutenek, orain eginkuzun ekonomikoa obratzen dute. Eskola, adibidez,

Poder politico y clases sociales en el estado capitalista

Nicos Poulantzasek

10. edizioa



gero eta zehazkiago, heziketa profesional eta teknokora zuzentzen da. Beste horrenbeste militar eremua, aintzinarmentzako sektore teknokratiko eta industri bide bat bilakatu delarik, harmamen-

du salketaren bidez irabazpide handiak sortu baitira.

Gauerregun ezin daiteke "boterea" aipa, produkzio eta erakundeen arteko lotura konkretuak kontutan hartu gabe. Hori da Poulantzasek berezitasun nabariena, azterketaren koherentzia eta objektibitatea hain hestuki zaintzen zituelarik.

Haatik, Poulantzasek lanek ez zuten teoria abstraktuaren mailan geratzeko asmorik. Estatu, klase sozial berrien beraien arteko harremanek mugatzen dutelarik, burjeseria kapitalistaren fakzio banatuen arteko borroka jomuga eta harrapakin da. Borroka hau da hain zuzen barrenetik aldarazten duena. Estatuaren giltza nagusiek maneiatzen dituzten gizak berak ere, menderatzen dituen sistema baten jokuan hitxirik, irten ezinik, aurkitzen dira, nahiz berek besterik nahi Mendebaldeko. Ezker partiduek onartu beharko lukete, ez dela aski boterea eskuratzea kapitalismotik irteteko. Merezki luke, bestalde, beraien estrategia guztia birplanteiatu eta birbaloratzeak.

Hori zen, behintzat Nicos Poulantzasek usterik fermuena. Harentzat bakar bakarrik sozialismoak eman diezaiokeen zentzua ezagutuko ez duen etorkizunari.

Ch.D.

Atenasen, 1936ean jaioa, Poulantzasek Frantzia bizi zen 1960.az geroztik. Soziologiako hitzaldi maixu zen Paris-VIII-Vicennes-ko unibertsitatean eta Zientzia Sozialetako Goi Ikasketetako Eskola-ko irakasle. Nicos Poulantzasek lan hau argitaratu ditu: "Fascisme et Dictature" (Maspero, 1971); "Les Classes Sociales dans le Capitalisme aujourd'hui" (Le Seuil, 1974); "La Crise des dictatures" (Maspero 1975); "La crise de l'Etat" (obra Kolektiboa, PUF, 1976); "L'Etat, le Pouvoir, le Socialisme" (PUF 1978). Horretaz ba ditu hainbat artikulu eta txosten han eta hemen argitaratuak.

SAIOKA 6.

HIZKUNTZA



HIRU SAIOKA BERRI

Ikastoletarako euskarazko material falta handi bat izan da betidanik. Hala ere, alor hontan urteotan zehar esperientzia arras interesgarri bat eraman izan da aurrera SAIOKA delako liburu bildumaren bidez. Euskal haruren heziketari zerbitzeko sortutako bilduna hau, SAIOKA, ez da euskaratze lanera mugatu. Aitzitik, euskal haurrei dagozkien ikasgaiak prestatzen saiatu dira, euskal pedagogia aktibo baten ikuspegitik.

Aurtengo ikasturtearen hastapenetan beste hiru liburu argitaratu ditu Bizkaiko Ikastolen Konfederakuntzak. Hain zuen; Saioka-3/Matematika, Saioka-6/Hizkuntza eta Saioka-6/Sozial Arloa. Banan banan komentatuko ditugu hiru liburuok.

SAIOKA-3/ Matematika: Egile askoren artean prestaturiko liburu bat da, eriketakoa batipat, umeak esperientzia arrunten bidez hel daitezten logika eta matematika ulertzera.

SAIOKA-6/Hizkuntza: Egileak J. Dorronsoro eta Boni Urkizu dira. Alde batetik, oihalgilearen kutxaren antza hartu dakioke, baina idazkera, gramatika eta lengoaiari dagozkion beste gauza elementalak ikasteko metodo bezala interesgarria da, batez ere, aplikazio pedagogiko egoki bat ematen bazaio.

LIBURU BERRIAK



SAIOKA-6/Sozial Arloa: Saioka honen sozial arloaren ikerbide edo ikasbide interesgarri bat proposatzen du, hau da, mundua progresiboki ikasiz joatea. Lehen unitatean medio naturalaren erak azaltzen dira, bigarrenean geografia, hirugarrenean urrutiko geografiak, laugarrenean geografia, hirugarrenean urrutiko geografiak, laugarrenean bizimodu eta gizartearen bilakaerak eta bost garrenean historiako lehen zibilizazioak aztertzen dira. Azalpen oso egokiak dira.

Saiakera lantsu eta ontzat hartu daitezke hiru liburuok. Alde batetik, euskarazko materialaren hutsunea betetzen lagungarri direlako eta, bestetik, pedagogia ireki eta eta praktikoago biten bidetik abiatzen direlako.



LIBURU BERRIAK

Ernesto Sabato
**El escritor
y sus fantasmas**

Seix Barral - Biblioteca Breve



EL ESCRITOR Y SUS FANTASMAS
Ernesto Sabato

Zergatik, zalan eta zertarako idazten dira fikzioak? Hau da Ernesto Sabato idazle argentinoak bere buruari egiten dion galdera eta liburu honen bidez erantzuten saiatzen dena. Erantzuna, hala ere, ez da azaltzen teoria osotu baten antzera. Argi eta sakonki azaltzen dira fikzioaren erroak, baina ez saiakera zehatz baten bidez, areago dira idazle baten egunkariko ohar solteak. Ohar luzeak nahiz laburrak, eritzi sentikorrek nahiz idazle gazteentzako aholkuak. **EL ESCRITOR Y SUS FANTASMAS** delako liburu hau 1967an argitaratu zen lehendabizikoz, baina argitara berri du Seix-Barral editorialak bertsiio definitiboa.

Ernesto Sabato 1911n sortu zen Rojas deritzon herriskan, Buenos Aires aldean. Fisika eta filosofia ikasi zituen, baina 1945ean utzi egin zuen guztia literaturara dedikatzeko. Geroztik nobelagintzan eta saiakeran dihardu. Bere hiru nobelak oso ezagunak dira: **EL TUNEL** (1948), **SOBRE HEROES Y TUMBAS** (1961) eta **ABADDON EL EXTERMINADOR** (1974). Idatzi izan dituen saiakerak ere arras interesgarriak dira, batez ere **UNO Y EL UNIVERSO** (1945), **HOMBRES Y ENGRANAJES** (1951) eta abar.

EL ESCRITOR Y SUS FANTASMAS delakoan egungo literaturari buruzko bere eritziak azaltzen ditu. Fantasmak uxatu eta alderdi ahantziak erreibindikatu. Liburu irakurgarria da Sabato-rena eta milatik gora folioko askok baino zeresan gehiago du, seguru asko, liburu aldakor eta atsegin honek.

JE T'AIME
MICHEL MEIGNANT
AVANCE

1975.eko Otsailaren 3ko "Le nouvel observateur" izeneko aldizkari famatuan gertaera harrigarri bat argitaratu zuten: "Vincennesko unibertsitatean larrutan nola egin erakusten da". Aldizkari idazkia estilo eta asmo eskandalagarri sentsazionalistaz idatzirik zegoen, baina errealitatea ez zen hain harrigarri. Vincennesko unibertsitatean, eta Michel Meignant jaun irakaslearen ardurapenean sexologiari buruzko ikastaro bat eratu zen. Egia esanez, ikastaro honen asmoak edo helburuak ez ziren ohitura edo balore tradizionalak zaintzea, sendotzea eta indartzea, arazo sexualak ikuspegi zabal eta aurrerazale batetik aztertzea baino. Eskandalu periodistikoa oso handia izan zen eta Vincennesko esperientzia hori nolakoa izan zen jakiteko bertako sexologia irakasleak idatziriko liburu eskura dezakegu. "Je t'aime" izeneko liburu hau espainolez ere izen berdinez ezagutzen da. 1975. urtean argitaratu zuten- hemen



Avance


1976. urtean. Liburu elkarrizketa bat bezala agertzen zaigu. Elkarrizketako partaideak irakaslea bera eta bi ikasle gazte, neska eta mutila dira. Ikasleen galderen bidez, irakasleak, Michelek, bere bizitza eta arlo sexualekiko bere teoria guztiak agertzen dizkigu.

Nahiz eta dela bost urte espainolez argitaratua egon, liburu honen garrantzia handia dela uste dugu. Putetxeetan hiru minututako ihardunaldietan eta arineketan hutsean edo kotxeetako atzeko jarleketan maitasuna egiten ikasi genuen gizonentzat, edo heziketa klasista, antifeminista eta klerikaloide ortodoxoan bere gorputzaren ezezagupenaz eta sexuari buruzko oskurantismoaz hezi ziren, eta dirren emakumeentzat, edo masturbazioa egin ondoren ifernuko sugarrez eta minnez pentsatzen genuen gazteentzat, eta pentsatzen dutenentzat, eta beste abar luze batentzat, liburu honen irakurketa guztiz gomendagarria iruditzen zaigu.

Ez da bakarrik egoera faltsu eta larri horik oso ongi deskribatzen dituelako, baizik eta gizonen eta emakumeen maitasuneko praktikentzat, egoera horiek ekarri dituzten ondorio kaltegarriak ondo azaltzen eta aztertzen dituelako. Gure historia egungo arazoak eta irtenbideak ere, teoriarik noski, liburuan plasmaturik ikus ditzakegu.

Liburuak, egileak dioenez, sexualitate berari dagozkion arlo guztietara zabal dezagun dago idatzirik. Inolako aurreritzi barik. Inolako errepreziarik gabe. Berton, edozein gai munduko naturalitate handienaz aztertuta eta perfiletuta aurkezten zaigu: felazioa, kunnilingusa, Master eta Johnson sexologoaren teoriaren eta metodoen buruzko kritika, zakil tamainua, homofilia, isurketa arina, eta abar. Hainbat aurreritzi kentzeko, edo baztertzeko, edo interpretatzeko bederen, interesgarria izan liteke liburu honen irakurketa zein, benetan, gustura egiten baita.

Antonio B.



Zarautz. Herriek ere Zinemaldiako giroa hobegotu zuten.

DONOSTIAR ZINEMA



"Angi Vera" eta "Pesadillas"; biek Heziketa zuten gai bezala.

TÓMAS ALBARI eskainia, berarekin zenbait filme-emanalditan batera egon bainintzen.

Zinemaldia azkendu ondotik zenbait aste geroago, aurtengo emanaldia hasieratik inguratu duten problemetaz berri aritzea harroputz eta errepikagarri gerta liteke.

J. Idoeta Batzorde Zuzentzailearen buru gisa izendatetik bertatik, haren barnean sortu zen elkar oldartzea; Watergate arazoa; lokalaren prezintatzea; presa eta lehia; Cannes; Batzorde Zuzentzaile berria,... Kazetaritzan dauden betebeharrak direla kari, horik guziok bigarren mailara pasatuak dira hurrengo egunean. Azkenez, Zinemaldiaren buru gaineko

Damoklesen ezpatak, FIAPFen azken abisamendua kasu, aurten agertuko ziren problema guztiak gainhartzen zuten.

Aurreko hauen partida gisa, Zinemaldiari alderdien laguntza, Udal Polizia ordenu zaingoaren arduradun izendatzea (zentzu hontan tamalgarri da Zinemaldia bukatu izana), donostiar popularen seriositasunak eta erantzupenak ospatutako manifestaldietan esperantzazko kolore eta antza ematen zioten Iñaki Quijerearen erhanketan, L. Caloren larritasunaren eta ekintza hauei buruz popularen erantzunaren ondoan. Zinemaldiak salbatzea merezi ukan du. Etorkizuna besteren eskupean dago.

Hontaz guzientaz luzaz aritzeari buru

gabe deritzot baina ez dut aukera hau galletsiko, Zinemaldiari buruzko nola baiteko kritika demagogiko zenbaiti behaene harridura agerterazi gabe; beraik erizpide teoriko eta abstraktu samarretan oinarrituta daudelarik. Ez daukat behin ere adituta inork langile bat kritika eta maisea dezanik, haren lanaz eta honek sorterazen duen plusbalioaz burjeseria eta oligarkia mantentze soilagatik.

Denok dakigu zer nolako plataforma edeideologiko, politiko eta ekonomikoaren gainean dauden eraiki eta egituratuta Zinemaldiok, baina hau ez da eragotzarri, gizarte horren errotarriak irensten ez dituenak Zinemaldi honen izatasuna barne-barnetik aldaraz dezan, euskal kulturaren eta oro har, zinemagintzaren



"Marathon otoñal",
"Urrezko Kontxa" lortu zuen URSS-eko filma.

DIAREN INGURUAN



laguntza dela eta.

Gipuzkoako herrietan eta Nafarroako zenbaitetan 180 projektapen eman ahal ukana, mintzaldi programatuekin batera (A. Sartre, Eva Forest, Felipe Cazals, Gipuzkoako Emakumeen Batzarrea, EH-GAM, Rosette de Saint-André, E. Loteanu, etabar, etabar), Nazionalitateen zirkloaren ospakuntza (halanola Euskal Herria, Kanariak, Galizia, Andalusia, Katalunia, Gaztela, Leon, Okzitania, Britainia, Hegoamerika, Belgika,...), bertan ikusi ahal ukan dugu halako zinema nazionala, bazterreraturik, eremu hontarik landa ezagutu ahal ukateko paradarik gabe ia-ia; Arte eta Saiorako zikloa (27 filmerekin) eta honelako zinema, bere definizio eta barren problematikari buruz burututako

egunak, Taviani senideei eskainitako atzerabegirada. Cannes (produktore -banatzaileen Babilonia) eta Berlin (Merkatua) hirietakoak bezalako Zinemaldien ondoan, Donostiakoa obratzaile, errealtatzaileen beren topagune izatea eta euskal zinema ikustera espreski Euskal Herriratuko ez zirenek ezagut dezaten gai izatea; hauek guziok balantza makurrezaten ahal dute alde positiborantz, baldin eta denok kontzient eta jakitun bagara zer behar duen Euskal Herriko egoera politiko eta kulturalak.

Azkenez, nahiz eritzi pertsonal samarra den, nik uste dut ezik Zinemaldi honen I. Uriberen "El proceso de Burgos" salbatu ahal ukan duela, Canneskoak F. Ford Coppola -ren egoera salbatu zuen

era berean, bere Appocalypse Now-rekin. Gobernutar hertsadurek hala eman zuten aditzera.

Modu oroz ere nor bere esku da nahi eran pentsatzeko, honek denok dazaguzkigunen faboragarri soilik datekeen girorik sort ez dezakeen guzian. Eta ba da holako arriskurik.

Azaldutako filmeei orori buruz elestatzea litzateke lan itzalgaitza. Gu denok menpean gaituzten denboraren mugen barnean zaletu gisa ikusi ahal ukan ditudan filmeei atxekiko natzaie. Ba daude hirur filme sail ofizialeko (Marathon otoñal, Saint Jack, El pequeño Arquímides), berak ikusi ez ukana damu baitut; beraz haien egiteko den kritika mendratua izanen da gonbaratiboki. Garen hasi.



Manhattan, W. Allen-en obsesioak lan nagusi honetan, Gershwin-en musikaz lagundurik.

MANHATTAN

Ardura erraten da egiazko egileak kasik beti filme berdina egiten duela. "Interiors" burututakoan, tankera hori hausteko gai izateak eta "Manhattan" egiteak erakusten dute W. Allenek oraindik esateko handia duela zinemaren arloan. Gershwin-en musikaz baliatuz, "Annie Hall"-en egindako modu berean mintzo zaigu haren pertsonaiak pairatzen dituen obsesio eta zaputaldi guziez: emakumeekiko harreman sentimental eta sexuala, bere bizirik segitzeko arazoak, New York-enganako bere maitasuna, snobismo intelektuala, psikanalisia, adiski detasunaren zentzua, hau denau gidoi bikainaren eta bere hiriarenganako sentitua jasotzen duen zuri-beltzezko irudiarren bitartez, sentikortasunez eta arraitasunez beterikako burutzapenarekin batera, haren hurrengo burutzapena noiz gertatuko zain gauzalarik.

APOCALYPSE NOW

Ene iduriko, ba daude hiru filme Estatu Batuen Historia zer izan den eta den berez zehazten dutenak: "El nacimiento de una nación"-D. W. Griffith; "Ciudadano Kane"-Orson Welles (amerikar "way of life" delakoraren goreneko puntua, botere sistema osoa eta hartarako irispideak zehazten dituen) eta "Apocalypse now"-F. Ford Coppola (haren gainbeheraldia, haren beraren hatzaparpean harrapatutako gizartearen muga fisiko eta psikikoa).

J. Miliusen gidoiaren barnean J. Conraden "El corazón de las tinieblas" kondaira sartuz, erakutsiz doakigu, hibaian gaindi, Kurtz koronela (Marlon Brando) akabatzeke aginduz, Williard kapitainak (Martin Sheen) egiten duen bidaiaren bidez, guduaren beldurkude guzia (bai

VietNam, bai edonongoa), Zalduneriaren 7. errejimendukoa bailtzen guduak jokatzen duenaren hoztasuna (gogoratzeko da, Wagneren musikaren narritaduraz, "surf"-ean bere hondartzan aritu ahal izateko, R. Duvall-ek herrigune bat errausten duen eskena), "napalmak garaipenaren usaia dauka" bezalako esaldiak, etab. Bidaia errealista, fisiko, kanpoko oso hau Kambodian bukatuko da, bertan Kurtz koronelak erkidego bitxia fundatu baitu, Aginte Nagusiaren obedientzatik urrun. Une hontantxe, filmeak, aldaketa jasaiten duelarik, orduraino begietsi dugun zarrada osoaren interiorizazioa erakusten digu. Pertsona bere beraren mugaraino heldua da eta guduaren beldurkudea eta laztura adiskide kontsideratzea hautatu du, honela ez egitekotan zorotasunera, ala bestelako zorotasunera ote?, eramannen luketenez gero. Barneko bidaia honen, bere buruaren sakonerainokoak, istorioari berari balio berria dakarkio (haren burutzapena desberdinagoa den arren),



Gerlaren izua ez da inoiz ageri "Apocalypse now" filman bezala.

filmearen zentzuan sakonketari dagokionez, era guzietara. "El regreso" edo "El cazador" gisako filmeak gainditzen dituelarik.

Interesgarriak izan dira, halaber, aurtengo emanaldian ikusi ahal ukan ditugun Ekialdeko filmeak: "Angi Vera" (Hungaria), "Pesadillas" (Polonia) eta A. Wajdaren lau filmeak, beronen lanaz berriz aritu beharra delarik, "El hombre de marmol" eta "Sin anestesia" filmeekin hartu duen norabide berria dela eta.

Gogotan edukitzekoak dira "Mama cumple 100 años" (Saura bere mamuez gabetuz doa), "Paradistorg" (filme interesgarria, bizitza bideratzeko bi erazkoa: behatzailearen eta partehartzailearen erak, eta azkeneko eklosioa. Produktorea: I. Bergman), "A través del huracán" (M. Hellman; interesgarria, western inguruaren barnera dakarren berrikuntzari dagokionez), "La golfa" (J. Renoir-en filme klasikoa, oraindino ikusteko aukerarik ukan ez dugularik), "Canoa"

Felipe Cazalsena, M. Littin-en "El recurso del método" (eztabaidatua eta eztabaidagarria, baina zenbait arrazoiengatik interesgarria, nahiz eta hemen haietaz mintzatzuz ezin hedatu) "La Luna" (domaja, Bertolucci azkenekoan beste filme batzutan bezala mintza dakigun berriz, "La estrategia de la araña" erakuskaririk klarkien legoke, aitaren bilaketaz, gai hau delarik protagonista, baina ikuslearen gogoia erorerazten du burutzapen bikaina gorabehera, aita bilatuz geroz problemak oro suntsitu eta gauzak lehengo bidera arrajiten direlako (?)). "La Batalla de Chile"-ren hirugarren atala eta "Im feuer bestandem", Heynowski & Scheumannenak (bi dokumentalok Allenderen Chile dute interesgunetzat, batzutan errepikagarri gerta daitezkeelarik egileen beren beste dokumentalekiko, halakoa baita "La guerra de los momios" etab.), Bibermanen "La Sal de la Tierra", Schlondorfenen "Tiro de Gracia", Taviani Senideen "Il Pratto", "Allonsanfan", M. Valerstein

nen "La empresa perdona un momento de locura" eta abar azkengabea.

Halere, ez dut lan hau bukatu nahi gurtzat garrantzituena izan denaz hitz egin gabe: Zinemaldiaren barnean euskal zinemagintzaren egotea. "Ikastola", "Gernika", "Ikuska 1" eta "Ikuska 2" hurrenez hurren, "Erreferenduma", "Ikuska egile taldearena, M. Armendarizen "Barregarriaren dantza", A. Merikaetxebarriaren "Bilbo" (Ikuska 3), laburmetraitarako Urrezko Maskorra irabazitakoa eta plater azkarra, I. Uriberen "El Proceso de Burgos", "Antxotán" eta J. M. Gutierrezen "Balantzaxoa"-rekin batera gure zinemagintza jadanik katakunbetatik irteten ari dela erakutsi duena, zenbait zirkunstantzia politiko, ekonomiko eta kulturalak orain arte haietan egon erazita.

Espero dugu hurrengo alean euskal zinemagintzaren azken ikuspegi eta alderdi hontaz solastatuz hedatu ahalko gara la gehixeago.

X. Portu



AITASANTU IBILTARIA

Zalantzarik gabe hestuegia da Erroma eta Vatikanoko ingurunea Joan Paulo II.arentzat.

Oraindik ez da garaia, azken bi asteotan Aitasantuak Irlandatik eta Amerikako Estatu Batuetatik egin duen ibilaldia sakonki aztertze eta horren ondorioak ateratzeko. Hitzaldiak, harremanak, elkarriketak, ateraldiak... asko eta ezberdinak izan ditu. Ez da erraza izango guzti horren sintesia egitea. Baina egin beharreako izango da, Erromako Eliza nondik nora dabilen jakiteko.

"Urrutitik datorren Aitasantua" deitua eman izan zaio Joan Paulo II.ari. Baina Poloniatik Erromaratua izan arren, erromatarrek eta erromazaleek ez dirudi gaizki hartu dutenik. Ezagunak dira zein arrakasta handia izan duen Aitasantu honen audientziek Erroman bertan.

Hala ere, Joan Paulo II.ak edozein aukera hartzen du, Vatikanotik ihes egiteko. Hestua gertatu zaio zalantzarik gabe hango giroa. Pio XII.ak beretzat egina balu bezala bizi zuen Vatikanoko palazioen eta harresien eta kongregazioen giroa. Joan XXIII.ak hautsi ahal izan zuen hesitura eta Erromatik kanpora bere ihesaldi bakanak egin zituen. Paulo VI.ak gogo onez eta kontzientzia osoz onartu eta bereganatu zuen jokabide berria: Aitasantuak ez zeukan, Kontzilioaren ondoren, Vatikanoko "gatzelua" zaintzen egoterik, munduko gorabeherak handik juzkatuz eta kristau herria Entzikliken, dekretuen eta hitzaldien bidez handik bertatik gidatuz. Hala ere, Paulo VI.a, bere izaeragatik-edo, gustorago bizi zen Vatikanoko giroan eta ez "mundura" ateratzen zenean. Ibilaldi garrantzizkoak eta ez errazak egin zituen (Jerusalem, India, USA, Geneva, etab.); baina ez zen ibiltaria, eta sufritu egiten zuen nonbait ibilalდიotan.

Joan Paulo II.ak, ordea, erlatibizatu egin du Vatikanoko, Aitasantuaren bizileku bezala; nabari denez, atsegin zaio munduan zehar ibiltzea, Vatikanon geldiezina nabari zaion bezala. Baina bere izaera aparte, Aitasantutzaren irudia bera aldatzen ari da, eta bide irekiagoak hartzen ditu horrek. Beharbada Erromaren eta Vatikanoren zentralismoa hausteko balio izango du jokabide honek. Munduan zehar libreago sentitzen da nonbait Joan Paulo II.a, Vatikanon baino.

Lau ibilaldi, lau plataforma

Lau ibilaldi handi egin ditu Joan Paulo II.ak urtebetean: Mexikora, Poloniarara, Irlandara eta Amerikako Estatu Batuetara. Lau irteera eta ibilaldi hauek gauzabat dute elkarrekin: laurak plataforma gisakoak izatea.

Mexikora joan zen, Latinamerikako Apezpikuek (CELAMek) ospatzen zuten Batzarre nagusira. Eta nahiz eta Mexiko Hegoamerikako eta Ertamerikako Estatu Batuetatik urruti xamar egon, egoera politiko-sozial eta ekonomikoari begira, Aita-

santua Mexikoko ihardunaldietaz baliatu zen Latinamerika osoari hitzegiteko.

Nabarmenagoa izan zen plataformarena, Poloniara eginiko ibilaldian. Inork ez zuen zalantzan jarri, Europako Herri sozialista guztien aurrean jartzen zela Aitasantua, eta guzti horiei begira hitzegiten zuela. Aukerako "pulpitua" zuen bere Herria, Polonia, mundu sozialistarekin urrutiko harreman hori hasteko.

Berriki Irlandatik egin du bere ibilaldia. Beste inon baino entzute handiagoa izan du ibilaldi honek Britania Handian. Ingalaterran prentsa laikoak eta profanoak "Roman Catholic Church" (Eliza katoliko erromatarra) deitzen dute Aitasantuaren menpeko Eliza. Inolako esana hi teologikorik ez du titulu horrek; Eliza anglikanotik eta besteetatik bereizteko izena besterik ez da. Eta jakina da, Erromako Eliza katoliko horretatik eta horren eraginetik urruti gelditzen dela Ingalaterra, ez Irla delako bakarrik, eta bai bere historiagatik ere eta bere Eliza Anglikano ofiziala eta estatala duelako ere. Guzti honegatik, Aitasantuari nahiko bihurria gertatuko litzaioke, lehen urrats bezala, Ingalaterrara bertara joatea, zuzenean hango herriarekin harremanak izateko. Irlanda katolikoa izan du horretarako bidea, eta Ipar Irlandako arazo eta istiluaz baliatu da Britania Handiarekin elkarrizketa hasteko. Zoritxarrez Ipar Irlanda birtarteko besterik ez da gertatu, hango jendea bera ikustera joaterik ez baitzuen izan Aitasantuak, Ingalaterrako Gobernuak nahi ez zuelako, seguruenik.

Azkenik, USARA egin du Joan Paulo II.ak bere ibilaldi entzutetsua. Eta berezi ONUra. Mendebaldeko Estaturik indartsuena eta Munduko Estatu guztien ordezkarien Biltokia eta bozgorailua den ONU, plataforma oso egokiak zituen Aitasantuak bere ahotsa mundu osora zabaltzeko. Lehenagotik ikusia eta erabilia zuen Paulo VI.ak ere. Elizak, lehen mendetan Erroma aukeratu zuen bere "Hiriburua" bezala, Inperioaren Hiriburua zenez gero. Erroma ez da gaur Italiaren Hiriburua besterik; eta Eliza katolikoarentzat ere ezin izan zentru nagusi bakarra. Zalantzarik gabe Historiak lotuta dauka Erromari bai Aitasantua eta horrekin batera Eliza katolikoa. Baina gaurko munduan eragin eta entzute handiagoko zentruak daude; eta plataforma horietaz baliatu beharra ulertu dute azken Aitasantuek.

Plataformaren taktikaz aparte, Joan Paulo II.aren ibilaldi hauek besterik ere erakutsi dute: gidari moral eta izpiritual batek gaurregun ere izan dezakeen erakarmena. Gidaritza eta erakarmen horiek politikaren lotura asko dituzte noski. Baina ezin uka, gidari politikoei, Estatuburuak eta Gobernuburuak nahi luketela berentzat, Joan Paulo II.ak bere ibilaldia hauetan agertu duen erakarmena.

Inguruan sortu duen festa-giroa eta dramatismo-giroa, biak nahasirik, jendea eta komunikabideak beste inolako gidaririk



baino gehiago inguratu ahal izan ditu joan den leku guztietan.

Elkarrizketa ala gidarismoa?

Ibilaldion arrakasta horrek beti uzten du atzetik bere zalantza ere. Populismoak uzten duen zalantza; eta ezin uka, Joan Paulo II.aren ibilaldiok populismoaren kutsu handia dutela.

Hiru mailatan edo jaulki izan dute Aitasantuek horrelakoetan beren mezua: mundu politiko eta sozial zabalari, kristau ez-katolikoei eta katolikoei.

Diplomazi hari asko baldin badituzte ere Aitasantuaren ibilaldiek, ez dira izan ohi, indar eta gidari politiko eta sozialekin elkarrizketa luzeak egiteko eta akordio handitara iristeko. Horrelako ibilaldiei ez dago eskatzerik ere horrelako fruiturik. Maila horretan harreman diplomatikoei eta hitzaldiek osatu dituzte Joan Paulo II.aren ibilaldiak. Hala ere, ba dirudi, harreman diplomatikoei ere adiskide-giroa ematen jakin izan duela berak. Dena dela, abstraktuegiak eta edonolako adierazpidetarako izan ohi dira horrelako harremanak eta hitzaldiak. Hiru puntu nabarmendu izan dira, hala ere, Joan Paulo II.aren ibilaldietako hitzaldietan: Askatasun politiko, sozial eta erlijiozkoa; biolentziaren kontrakoa; eta herri eta klase pobreen aldekoa.

Kristau ez-katolikoei buruz eskasak izan dira Joan Paulo II.aren ibilaldiak: ez dute ekumenismo-asmo eta programa argirik agertu, nahiz eta erlijio-gidarien alde tik hitz onak eta laudorioak entzun ahal izan. Britania Handiari buruz eta begira Irlandara egindako ibilaldiak ba zirudién asmo ekumeniko nagusia ukan behar zuela. Baina ez da horrelakorik agertu. Aitasantuaren jende-erakarmenak eta komu-

nikabideetako entzuteak gainezkatuta bezala utzi du Ingalaterran bertan Eliza anglikanoaren burua, Canterbury-ko Artza-

pezpikua. Honekin elkarrizketa edo elkarrekintza ekumenikorik ez du abiatu bere ibilaldi horretan. Gauza berbera esan ote daiteke, USAko erlijio-gidariei buruz?

Eta katolikoei buruz zer? Seguru asko gidarismoa eta populismoa gailendu dira. Zalantzarik ez, horretarako balio handia duela Joan Paulo II.ak.

Baina bisitatu dituen Elizen barnean problema latzak dituzte hango kristau askok, nahiz eta gutxiengoak izan. Polonian, edota Irlandan, edo USAko Elizan, katoliko askok arazo larriak dituzte, eta hain zuzen ere Eliz Hierarkiarekin, nahiz eta arazo horik oso ezberdinak izan Eliza bakoitzean. Seguru asko katoliko-multzo horien galderak eta arazoak ez dira konpontzen Aitasantuak milaka lagunen aurrean egiten dituen hitzaldiekin. Beraien-gana hurbildu beharra izango luke Aitasantuak berak, elkarrizketa hurbileko eta sakona abiatzeko.



Bere arrakasta eta guzti, zerbaitek hutsegin die Joan Paulo II.aren ibilaldiei. Edo dena dela, zalantzaren bat gelditzen zaigu hor barruan.

Paulo Agirrebaltzategi

GOMIKIA 2 EHUN KILO



A.: Noiz hasi zineten Gomikia argitaratzen?

— Ba, orain dela urtebete, 78ko urtarri-lean Zeruko Argia-ren inguruan ibiltzen ziren grafistak hasi ginen eta gero zabalduz joan zen zirkulo hori.

A.: Zein helburu izan zenuten hastape-nean?

— Ba. Ipurbeltz eta umei zuzenduriko komikiak oso mugaturik daudela ikusiz, bai gai, marrazki, teknika eta euskararen aldetik ere, komikia lengoia bezala desarrollatzea izan da gure asmoa.

A.: Euskararen aldetik esan duzu, nola?

— Komikiari apropos dagokion hizkuntza bat asmatzen saiatu gara. Hau ezin egin daiteke teknikoki, praktikoki eta eginez baizik. Gauza bera esateko, marrazkien bidez istorioak kontatzen ikasten ari garen bitartean, ikasi egingo dugu euskara apropos hori erabiltzen.

A.: Nahi baduzu, Ehun Kilo hau istorioz istorio komentatuko dugu. Esate baterako lehena zer?

— Lehena "Gabonetako oparia da" eta Olariagaren istorio beltz bal da, normalean erabiltzen ez duen estilo batean, suspentse eta mistorioaz umorea egiteko saio bat.

Bigarrena zein da?

Hau neska bizkaitar batek egin du.

Iruñian bizi eta Bilbon ari da ikasten: Gentz del Valle. "Gurpil Zero" egin du. Klasifikatzea zaila da, baina fikziozko mundu bateko ekologia, hirigintza eta halako arazoei loturik dago. Berria da neska hau komikigintzan eta gai zabala hartu du istorio luze samar bat azaltzeko.

A.: Bai, ANAITASUNAn ere kolaboratzen du neska honek. Bueno, errepasatzen ari garela, 27. orrialdean artikulua bat agertzen da hizlaur. Zer dela eta?

— Tituluan esaten den moduan, Joxan Muñozek idatzirik testu bat da, "Gomikiaz, euskaraz, euskal gomiziaz". Gomikia eta Ehun Kilo aurrean dituela balantze giseko bat egiten du.

A.: Hurrengo komikiak ba du zerikusirik Soriarekin. Ez dea?

— Titulua, "Seguritate handiko espetxea" besterik ez da esaten. Mikel Plazola gidoigileak eta Luis Astrain marrazkilariak ez zuten holako intentzio gaiztorik buruan. Berehala konturatuko zarete gartzela horren barruan gertatzen dena, oso urrutiko gartzela siniestro batean gerta daitekeela bakarrik.

A.: Nola egin dute elkarlana komiki honetan?

— Gomikia delakoan bakoitzak bere komiki luzea egin zuen. Baina honetarako

elkartu egin dira biok. Batak batez ere marrazkiak eta besteak gidoia eta bineten distribuzioa batipat eginez, elkarlan saio bat beraz.

A.: Nor da Alberto Saavedra, Laugarren komikiaren egilea?

— Hau Donostiako mutil bat da, beste gauza askoren artean antzerki lana egiten duena. Kikio Mimoa pertsonaia asmatu du eta kontatzen digu, sagarretan ari zela bonba bat topatzen duela eta berau kitatzerakoan, gertatu zitzaizkion pasadizoak, eta Hau guztiau hitz bat ere esan barik.

A.: Gero fotoak datoz?, zer ostia egiten dute hemen?

— 1574.eko hauzi zahar baten kronika da, marrazkia grabatu kutsuaz eginak dira, giro antigual hori lortzeko eta testua euskaraz, erdara zaharraren itzulpena.

A.: Hurrengo komikia, Larrarte-rena da, Zeruko Argia-ren kolaboratzaile batena.

— Bai emakumeak nagusi diren mundu bat azaltzen du, 2045.urtean.

A.: Ez berri tristerik ekarri, mesedez, zein da hurrengoa?

— "Korbato" deritza, gidoia eta marrazkiak Xabi Lopez-enak dira. Hemen, Hain polita dagoen Santa Klara popotik hartzerakoa istripu nuklear bategatik. Eta mutante batzu sortzen dira geroztik, Korbato delakoa hauen artean... Suspen-tzeko istorio bat beraz.

A.: Eta C'est fini?

— Bai, ale hau bai, baina ez da guztiz bukatu. Sarreran diogun bezala.

A.: Bestalde pentsatu duzue noizbait European eta Ameriketara zehar egiten diren zenbait kimiki itzultzeaz, kreazio lanetik aparte?

— Hori guretzat eman ezin dezakegun urrats bat da, ez baitakigu seguru hirugarren edo laugarren libururik aterako den ala ez. Gainera, seguru asko izango dira editorial batzu, Asterix eta Obelix-ekin gertatzen den bezala, merkatu bat ba dela ikusten badute, "abertura" hori aurrera eramateko prest egongo direnak.

A.: Noizko aterako duzue hirugarrena, gutti gora behera?

— Lanean ari gara Gabonetarako ateratzeko. Ikusiko dugu...

A.: Hirugarren honek ere izen subertsiboa izanen al du?

— Oraindik pentsatu gabe dugu, hala ere ez dugu uste Ehun Kilo subertsiboa denik, beharbada pisu samarra. Izen bat asmatzen ari gara "Tximist eta Plast". Hala ere arriskutsua iruditzen zaigu, kaleetan zehar geure propaganda sartzen hasten bagara, jendeak ikusiko du estatutu honekin tximist eta plas...

Joseba Sarrionandia

“ANAITASUNA”ren 379/380 zenbakian, *garapen* hitza euskal haizetara ematen zuen J.R. Etxebarriak. Hitz hau promozionatzeko asmoz, proposamen bat egiten zuen. Zentzuz eta benetako ganoraz egina iruditu zitzaidan proposamena eta egoki jaurtikia. Eta oraintsu esan didatenez, Etxebarriaren asmoa garaitza bidean dugu: erroak eman eta “desarrollo” ustearen adierazle gotor izateko bidean omen dugu *garapen* hitza.

Ez nau batere harritu oraingo albiste honek, baina bai ordea harritu ninduen proposamen hura irakurtzeak; Etxebarriak esaten zuenez, ideia, nire liburuaren izenburutik hartua zuen. Baina nire harritura ez zetorren horretatik, beste zerbaitetik baino.

Hogeitaka urteak daramazkit zenbait horrelako hitz jator eta egoki (ene ustez) barreiatzen. Euskaldun zaharrengan bizirik ditugun eta gaurko bizibidearen garakeran erakor genituzkeen hitz eta formak haizutzen. Baina alperrik. Ia etsitua, horretara egina nengoen. Badirudi, hemengo euskalariak beren begiak barnerrantz begira edo dituztela. Eta bakoitzak bere iturrizkoko ura bakarrik edan ohi duela. Beraz, norbait bere inguruetara ermeki begira sumatzeak harritu ninduen.


Bai eta beste zerbaitek ere eta ez gutxiago: Etxebarriak ez ditu garbiro azaltzen bere idazkian, (ez ditu espreski izendatzen) baina bai planteatzen ditu, eskerari buruzko arazoetan beti gogoan behar genituzkeen bi puntu nagusi: hizkuntzaren atondura (estruturura) jarrai eta errespetatu beharra eta *fonetikaren estetika* edo izendatuko genukeen hori ere badela. Puntu horiek haintzat hartzen dituen euskalari gutxi ageri zaigu gaur. Eta jokabide hau, galgarritzat, kaltegarri haunditzat egotzen dut nik, euskara batua sortzen ari zaigun garai honetan.

Hizkuntzaren atondurari buruz, euskarari garrantzi handia du, hitz famili osoak atontzeko eta eraikitzeko erakortasunak. Baina latin hizkeretan puntu horiek ez du garrantzi handirik (honen zergatikoa adieraztea luzamendu litzateke orain) eta hizkera horien arauz euskara lantzen ari garenez, halako gorotzak egiten ditugu. Begira *desarrollo* eta *debelopamendu* hitzekin zer hitz famili sortu ahal izango litzatekeen. Batak (desarrollo hitzak) badirudi ukakor zentzu batetarako egokiagoa dela, bere *des-* hasierakin, garatze zentzua adierazteko baino: *des-arroilo* (arra ez den oiloa edo arrautzarik egiten ez duena adierazteko balitz pasa.) Eta besteak (debelopamendu) zaldi lasterketa edo horrelako zerbait adierazi behar duela dirudi, lehen entzute batetan behintzat. Baina irakurleak egin beza saialdixo bat, hitz-familiak bi hauen gain eraikitzen eta euskarak zer behar duen ohartuko da zerbait.

Fonetikaren estetikari buruz, ez dakit zer esan. Hainbatekin hitz egin dut honetaz, baina halako begirada arraro batez

GARAPEN

Gara ustea garatzen



erantzuten dute; zorakeriatzat hartzen ote duten nago. Eta ene barrera ez larritzeko, daltoneridunek ere gorria eta berdea bereizten dituztenak erotzat inoiz hartuko dituztela pentsatzen dut. Dena dela, gure senean edo senostean (subkonsziente) horrelako sentasun bat badarabilgu. Etxebarriak bere idazkian nahiko argiro erakusten du arazoa. Eta edonon indartsu ageri izaten da, gure oharrena erne ezarri gero. Eta, neska gazte lirain bati *Miserikordia* edo *Ranabalo* deitu ezaiozute, ingurukoek zer jestu egiten duten. Eta bi izen horiek emakumezkoentzat erabiliak ditugu. Berdin dira, *desarrollo* eta *debelopamendu* bezalako hitzak euskaldunen belarrietan.

Luzeki idatz dezakegu bai hauei buruz, bai eta euskalgintza arloan bizi dugun “idorraroari” buruz ere. Baina gaurko nire asmoa bestelakoa da: *gara* uste eta hitzaren gain zelako hitz-familia eta atondura eraiki dezakegun erakustea. Beraz, hemen doakizue ene eskaintzatxoa (Erda-

raz adieraziko ditut, nahiz eta “atxurkadaren bat” eman.

Gara - desarrollo (idea primaria, amplia de sentido absoluto).

Garatu - desarrollar.

Garatze - desarrollamiento (idea de la acción en su tiempo - sustantivado y declinable).

Garapen - desarrollo - desarrollamiento (idea intemporal de la acción).

Garaketa - desarrollamiento (idea de la acción en su dinámica).

Garakera - desarrollamiento (idea de la acción en su modo).

Garabide - medio, vía de desarrollo (garabidean - en vías de desarrollo).

Garataldi - tiempo, período de desarrollo.

Garataro - época de desarrollo.

Garakunde - desarrollo (idea de la acción en su magnitud y tiempo).

Garakuntza - desarrollo (idea intemporal de la acción en su magnitud).

Garakizun - asunto o problema de desarrollo.

Garatasun - desarrollo (calidad positiva).

Garakeria - desarrollo (calidad viciosa).

Garatzaile - desarrollador.

Garadun - desarrollado (que posee desarrollo).

Garage - sin desarrollo (que no posee desarrollo).

Garatzeke - sin desarrollar (que no ha sido desarrollado).

Garamotz - subdesarrollo (poco desarrollado, de desarrollo corto).

Garamin - muy desarrollado.

Garagaitz - difícil de desarrollar.

Garatezin - imposible de desarrollar.

Garateraz - fácil de desarrollar.

Garagarri - digno o apto para desarrollar.

Garagarri - posible de desarrollar.

Garatuegi - hiperdesarrollado.

Garatze lotua - hipodesarrollo.

Garagi - ambiente de desarrollo.

Garakor - propenso al desarrollo.


Hauek guztiok eta beste asko sortu daitezke uste honen arloko hitz-familian. Esate baterako, *erdigaratze*, *okergaratze*, *garatxar* e.a. Bai eta, Etxebarriak proposatzen dituen *supergaratze*, *hipogaratze* e.a.

Hizkeragintzaz arduratzen den irakurleak bere kontuak aterako dituela uste dut bai eta, euskarari buruz gaur ditugun usteak zentzu sakonezko saldatan beratu beharretan garena ere. Eta gaurkoz, hauxe aldarrikatuko nuke: latin hizkerak hitz-atonduren gain eraikiak diren neurrian, euskara, uste-atonduren gain eraikia dugula (eritz hau hobeto adierazteko, ez da aski artikulatu). Beraz, euskara batu ganorazko bat bultzatzean, ezin dugu ibili txantxetan. Etxebarriak planteatu dituen puntu nagusiak eta euskararen beste arau guztiak gogotan beharko ditugu. Bestela, irau ezingo duen munstro bat sor dezakegu.


ARDIBELTZA



33.



32.



33. ZENBAKIA

Leku-izen asko ditu gurutzegrama honek.

LUZETARA: 1.—Munduko irla handiena. 8.—Osmio (simbolo kimiko). 10.—Kloro (simbolo kimiko). 11.—..... Paz, Bolivia-ko hiriburua. 13.—Goizeko orduak. 15.—Indiar Ozeano-ko irla handiena. 17.—Peru-ko hiriburua. 18.—Itsasoan dagoena. 19.—'Gabe' adierazten duen aurrizki. 20.—Euskaldun asko dituen USA-ko estatua (laburpena). 21.—Afrika ondoko irla; iltzekanela ekoizten du. 25.—Alma..... Ertasiako hiria. 26.—Done Kolunba-ren irla, Eskozian. 27.— Adiskide, frantsesez. 29.—Arabia ta Afrika arteko golkoa. 31.—Nederlanda-ko hibaia. 33.—Euskal Herriko matrikula bat. 34.—Lehen pertsonako izenorde (forma ergati-boa). 36.—Aitaren emaztea. 38.—Neoi (simbolo kimiko). 39.—Klar; burutsu. 40.—Ikus Goitik Beherako 54. 43.—Bidaia egiteko urtar onena. 44.—"..... errazujoaiten ziren zu". 46.—Atzizki partitiboa. 47.—Valentzia ondoko herria. 48.—Atzizki alatiboa (iparraldean) 49.—Eztainu (simbolo kimiko). 50.—'Bizibidea' adierazten duen atzizki. 52.—Biar-noko hiriburua. 53.—Ingalaterrako harri-zirkulua; Brontze Haroan egin zen. 56.—Atzizki plurala. 57.—Huang..... (Txina-ko hibaia). 59.—Jupiter-en satellite bat. 60.—Siberia-ko hibaia. 61.— Afrikako mendi hau ekuadorean dago, baina elurra du tontorrean.

GURUTZEGRAMA

GOITIK BEHERA: 2.—Disko-konpainia. 3.—Afrika-ko sakan honetan, gizahondakin goizena aurkitu izan dira. 4.—Japoniako hiri honetan, bigarren bonba atomikoa erorerazi zuten. 5.—Eskualde hau Frantziaren menpean da, nahiz eta bizilagunak alemaneraz mintzatzen diren. 6.—Joaten da. 7.—Galdetzeko partikula. 9.— Ertasiako hiria; Tamerlan-en hiriburua zen. 12.—USA-ko estatua; urte askotan George Wallace zuen gobernadore. 14.—Britainia Handia ta Irlanda arteko irla. 15.—Euskaldun asko dituen USA-ko estatua; Kanada-ko mugan da. 16.—Gizonezko. 22.—Inoiz ez, alemaneraz. 23.—.....Beroa, ekuadoreko aldeko eskualdea. 24.—Indio (simbolo kimiko). 28.—..... itsas-zuloa, munduko puntu sakonena. 30.—Zehatz, juxtu. 32.—USA-ko hiria; Puget Itsasartean da. 34.—Assyria-ko hiriburua; Tigris hibaian zen. 35.—.....Kum, Kaspiar Itsasoa ondoko desertua. 37.—Greziako zelaia; han garaitu zituzten greziarrek pertsiarrak 490.ean. 41.—Turkia-ko lakua. 42.—Hegoekialdeko Asiako herria; gerra luzea sufritu zuen mende honetan. 43.—Garia ekoizten duen eskualdea, Sovietar Batasunean. 45.—Langue d'....., hegoaldeko Frantziako hizkuntza. 49.—Belgi-ka-ko mainaria. 51.—Galdera egiteko hitza (forma laburra). 54.—eta Luzetarako 40. Israel-go hiria (3 Hitz). 55.—Ezin entzun duen. 58.—Atzizki plural hurbila.

LEHEN URTEBETETZEA

ZURE ADISKIDEOK EZ ZAITUGU AHANTZIKO



Bizkaiak beti izango du bere Kutxa



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza handi bat



Gure herriaren nahi eta izpirituaren arauera dihardugu

Horrexegatik, hain zuzen, Gipuzkoako 100.000 familiatik gora gutaz fidatzen dira.

Gipuzkoan bizi diren familia guzientzat, soluziobide aproposak sortzen ditugu beren Aurrezki, Kreditu, premiak... etab. konpontzeko.

Gure herriaren nahi eta izpirituarekin zerikusi estua duten hainbat ekintza ere burutzen dugu. Horrela, gure lurralde

honetako kultur, folklore eta kirol adierazpenetan parte hartzen dugu; euskal kulturaren aldeko ekintzak bultzatu eta babesten ditugu (liburu argitalpenak, literatur txapelketak, margolaritza txapelketak, kontzertuak eta koralak, hitzaldiak eta kultur asteak...) eta Euskal

Hiztegi Arauemailearen argitalpena bezelako proiektu garrantzitsuak burutzen ditugu.


**LA CAJA TRABAJA POR GUIPUZCOA
Y PARA LOS GUIPUZCOANOS.**